


ttüpi-ttapa

1996ko maiatzak 9 • 181. zenbakia

Elkarrizketa

Jasone ALTXU

«DOIKeren helburua Baztanen euskara gehiago erabiltzea da»




MAIATZAK 12

HERRI URRATS SENPEREN

Beti bezala

NAFARROAKO KUTXAK ✓ ERRENTA AITORPENA EGITEN LAGUNDUKO ZAITU

1995 Errenta Aitorpena



1995 Errenta Aitorpena

1995 Errenta Aitorpena

1995 Errenta Aitorpena

Zure aitorpena egiterako orduan behar duzuna bizkortasuna, profesionaltasuna eta tratu pertsonala bada, zatoz Nafarroako Kutxara.

Behar duzunari buruz aholkatuko dizugu eta zure aitorpena momentuan egingen dugu.

Zuretzat erosoago izateko, deitu ordua hartzeko.

GANI NAFARROAKO AURREZKI KUTXA

DATUAK.....

❖ *Jasone Altxu Oronozkoa da eta azkeneko lau urteotan Baztan ikastolan ari da lanean irakasle modura.*

❖ *Doike Euskara Taldeko partaidea da.*

❖ *Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdin bazkideak biltzeko kanpaina hasi berria dute.*

❖ *Bileretara hogeita hamar lagun inguru biltzen dira aldiro.*

❖ *Hilabete honetan bertan, merkataritza munduan euskararen erabilera indartzeko kanpaina egingen dute.*

❖ *DOIKERen hurrengo bilera maiatzaren 16an izanen da Oronozko elkartearen arratseko 8etan.*

TESTUA:
JOXEMANUEL IRIGOIEN
ARGAZKIA:
KARMELE TOLOSA

Jasone ALTXU:

«DOIKERen helburua Baztanen euskara gehiago erabiltzea da»

DOIKE EUSKARA TALDEAK LEHEN PAUSUAK EMANAK DITU. NOLAKO BALORAZIOA EGITEN DUZUE ORAIN ARTEKOAZ?

Egia erran arras balorazio positiboa egin dugu. Jende aunitz jogan zen aurkezpena, ez genuen hainbertze jende agertuko zenik espero. Interesa bada-goela ikusi zen, eta bildutakoen artean baze-goen denetatik; gazteak, adinekoak... arras jende desberdina. Azken finean, hori nahi dugu, jende desberdina biltzea. Alde horretatik arras kontent. Hementxetik eskerrak han agertu ziren guztiei.

NOLA DAGO ANTOLTATUA DOIKE EUSKARA TALDEA?

Lau edo bortz talde daude barnean: bat hausnarketa taldea da, filosofia aldetik gidatuko gaituena; bertze taldea bilerak antolatu eta girotzeaz arduratzen da; hirugarrena, gure berriak gizarteratzeaz arduratuko da, eta gero, bertze talde bategen dirukontuak eramanen ditu. Gutxi gora behera, hoiak dira orai dauden taldeak.

DOIKEREN IKUSPEGITIK ZEIN DA EUSKARAK BAZTANEN BIZI DUEN EGOERA?



ETA ZENTZU HORRETAN ZER PENTSATUA DUZUE EGITEA?

Bai. Orain maiatzeko denda, ostatu eta orohar merkataritza munduan kanpaina egin nahi dugu, jendearekin euskaraz hitzegitera bultzatzeko. Gero, pixka bat aitzinago, Baztango kultur ondarea ezagutarazteko asmoa ere badugu, eta bide-nabar, ea kultur mailan antolatzen diren ikas-

guzietan eta lasaitasunez euskara erabiltzea da.

toro guziak euskaraz ematen hasten diren. Uda partean ipuin kontalarien emanaldiak antolatuta nahi ditugu herri desberdinetan, eta baita kirol ekitaldiak ere, batez ere gazteengana hurbiltzeko modu polita delako.

ZER MODUZ HASI DUZUE BAZKIDE KANPAINA?

Oraindik goiz da hori jakiteko, baina dena dela, argi dugu bazkideak biltzen ere gogor saiatu behar dugula.

► *«Baztanen jende aunitzek badaki euskaraz bainan gutik erabiltzen du, hori da kezgarriena. Erraz sartzen gara erdarara. Herri batetik bertzera ere desberdintasun izugarriak daude»*

REGISTRO GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.200 ALE

REGISTRATZAILEA: TTAPI-TTAPA KE

HERRIKO ETXeko PLAZA, 1

31780 BERA

TfNOA: 63 11 88

FAXA: 63 12 91

zendaria: Joxemanuel Iri-

en. **Publizitatea:** Miren Kar-

le Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor

ozena, Joxemanuel Irigoien.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzio taldea: Pello Ape-

txea, Juainas Paul, Kristina

an, Bittori Telletxea.

Erriemaileak: Joseba Azpiroz,

teban Arozena, Juana Mari

izar, Ainhoa Mutuberria, Iban

si, Txema Aldabe, Pello Etxe-

, Txema Urroz, Patxi Otxan-

ena, Ixabel Maia, Josune Etxe-

ste, Pablo Mendiburu, Joseba

rabide, Alizia Olaizola, Margari

enike, Koro Irazoki, Mixel

rendiain, Jacqueline, Elixabet

ria, Garbiñe Maiz, Oskar

opperena, Alberto Sansiñena,

ilo Apezetxea, Aitor Arozena,

stina Boan.

Laboratzaileak: EHNE Nafa-

a, Patxi Lasa, Mikel Bezunar-

a, Joxe Javier Etxeberria,

antxa Zabala...

Erriategia: Graficas Ona.

ttapi-ttapa ez du bere gain har-

n derrigorrez, aldizkarian adie-

ritako erranen eta eritzien eran-

kizunik.

Kunde Laguntzaileak: Bera,

Goizueta, Areso, Baztan,

Leizor, Zugarramurdi eta

Leizorako udalak, Bortzirietako

Udalak, Mankomunitatea,

Leizorako Zerbitzu Mankomu-

nitatea, Zugarramurdiko Akelarre

Udalak...

GAURKOTASUNeko GAIA

Haize Parkeak aztergai: ingurumena, ekonomia...

Beste energia iturri-ekin konparatuz, guti kaltetuko dute ingurua



Jose R. MASFERRER
ECOLAN enpresakoa

Haize Parkeek inguru naturalaren gain duten eragina bi mailatan neurtu behar dira; batetik, Haize Erroten funtzionamenduak sor lezakeena, eta bestetik, Parkea erakitzerakoan obrek mendi mazeletan eragiten dutena.

Lehenengo mailari dagokionez, funtzionamenduari alegia, egia da errotak nabarmen ikusiko direla, baina, subjektiboki baloratuko da hori; batzuentzat polita dena, besteentzat itsusia izanen baita. Bestalde, pasako hegaztietan eta erroten inguruetan bizi direnetan nola eraginen duen jakitea zaila da momentuz. Ikusi denez, Errenergako Parkean uste baino eragin tikiagoa izaten ari da.

Bigarren mailari dagokionez, kontu haundiarekin egin behar dira egiten diren obrak (bideak, argindar hariak nondik eta nola eramanez...). Momentuz, eta Leitzako kasuan konkretuki, kontu haundiaz ari dira egiten gauzak. Eta Baztango kasuan, obrak hasi aitzin Azterketa eginen da jakiteko nolakoa izanen den inguruan sortu den eragina.

Mendiak eta haizea guk ezartzen ditugu. Balia gaitezen hortaz!



Anton ERKIZIA
Hazienda-burua. Leizoa

Gauza da herriak ezartzen dituela mendi komunalak eta haizea, energia sortzeko Nafarroarentzat. Trukean, Nafarroak zerbait eman behar du bada herri hauentzat? Sinatutako hitzarmena, miseria bat da. Mendialdeko ekonomia xahututa dago, gure herriak zorpetan daude, itto-ta. Petroleoa eta gasa larrutik ordaintzen dugu. Ez al dira haize errotak energia iturburu orain? Ez al gara hortaz baliatuko herri tikiok? Beti ttuntun jokatu behar al dugu?

Hau da gure taldeak eskatu zuena Leitzan: Haize Errota horien produkzioaren %5eko balioa herriarentzat gelditzea. Hori lortu ezkeru, Udalaren zor haundiak ordaindu eta egoerari buelta osoa emanen genioke urte guttitan. Hiru taldeok erabataraz. Gainerako herriek ere ongi ikusten dute. Ezetz esanen digute Iruñetik, baina guk eskatu egin behar dugu, elkarrekin, zintzo, gogor. Arrazoia dugulako. Ametsa da?

Dena ez da dirutan neurtzen, baina larrua behar badute, larrua garesti saltzen ikas dezagun, bederen.

Hasieran hitzartutako Parke guziak mantentzea eskatzen dugu



Patxi OIARTZABAL
Baztango alkatea

Baztango udala ez dago konforme Nafarroako Gobernuak Haize Errotei buruz martxoaren 25ean hartutako akordioarekin. Akordio horretan ez ditu sartzen Baztango Udalak eta EHN enpresak lehenagotik hitzartutako zituzten zenbait Haize Parke (Alkurruntz, Okoro eta Gorramendi) eta bakarrik Belatekoa sartzen du. Guk ez genuke nahi bertze parke hoiak egiteko aukerari bidea betiko ixtea. Belatekoari dagokionez, udalak nahiago du erakitze faseak pentsatu bezala mantentzea, lehenik Saioa aldeko parkea egitea eta gero Txaruta aldekoa.

Hori da, azken finean, eskatzen duguna; ez diezaietela aterik itxi hasieran EHNrekin hitzartutako genituen bertze parkeei. Hemendik urte batzutura ikusten bada Parkeek eragin kaltegarria dutela, orduan, udalak hartutako luke Parkerik ez egiteko erabakia, baina bitartean, ez dezatela bide hori itxi, eta ixten badute, ekonomiko ki konpentsatu dezatela kentzen dituzten aukera.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.

• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40

Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratatutako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitortpenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jasotzen du.

IRAKURLEAK MINTZO

Baztango Balleko Etxea: euskararen errealitateari entzungor

Almandoz, Amaiur, Aniz, Arizkun, Arraioz, Azpilkueta, Berroeta, Elizondo, Elbete, Erratzu, Gartzain, Irurita, Lekaroz, Oronoz eta Ziga; hamabortz herri, Unibertitate eta Udal bakarra.

Ihauteriak, mutil dantzak, Baztandarren Biltzarra... ohitura eta eredu zaharrak mantendu dituen harana... Lehena. Goinafarraren euskalki aberatsekoa. Bortz biztanleetarik batek bakarrik ez daki euskeraz... Oraina. Lau haurretarik hiruk matrikula egiten dute D ereduan. Etorkizuna. Uztarturik hirurak: lehena, oraina eta etorkizuna. Errealitate horri, halere, badira entzungor egiten diotenak.

95eko urtarriean Baztango Balleko Etxeak lehiaketara ateratu ditu hirulanpostu: euskera, kultura eta kirol teknikariena. Hiruetatik bakar baterako egin dira oposizioak, bertze bietarako (Kultura eta kirol teknikarietarako) deialdiak Nafarroako Gobernuak gibela bota ditu euskera ez dutelako kontuan izan deialdia egin orduko. Hortik aitzina guzia erranda da. Balleko Etxeak ateratu dituen lanpostu urrietarako euskera ez dute jatako kontuan izan: liburategian ari-

tzeko administraria-liburuzainak ere ez daki euskeraz-, eta haurtzaindegirako atera diren lanpostuetarako ez da ja ere baloratu euskeraz jakitea.

Pentsatuko duzue: "Zer zama UPNko alkatea izan beharra...". Ba, ez, jaunandreok, ez! Alkatea ez dugu UPNkoa. Alkatea, bi lege-gintzaldi hauetan, bere haurteskunde-programan "ahots benetan abertzalea... ahots koherentea" (Ikus 96-II-3ko *Egunkaria*) eskatzen duen taldekoa dugu: EAkoa, hain justu.

BAZTAN - ZUGARRAMURDIKO
EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ



Larrunerat bide berri bat idekitzeko amets zentzu gabekoa ez du Azkaingo Kontseiluak santa sekulan gogoan pasatu ere!... Garbi da hori?

Apirileko 179garren agerkarian, TTIPI-TTAPAK asko gauza erran ditu Azkaingo Herriko Etxeari galdea egiteko penarik hartu gabe. Bitxi zauku gisa hortan egitea irakurleen argitzea. Dena den, egiak behar du beti irabazi eta gezurra garraitu. Egia? begiak idekitzea aski da, tokien gainean. Hortarako alfer direnentzat huna egia 7 zatitan:

OHARRA:

Azken egunotan jasotako gutun multzo haundiarengatik, aldi hontan Erreportaia eta Bota Bertsoa sailak kendu behar izan ditugu, idatziak zaharkituak geldia ez daitezten. Gogoratu, eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez dela komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta ENAaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, ttipi-ttapa bere esku izanen du horretarako eskubidea.

1. BERAK badu "jeepa pizta", SARAK burdin bidea edo tren tiki, AZKAINEK lur bidea. Guretzat aski da, lehen, orai, beti, Elizako kantuak dion bezala.
2. Azkainen, pottoka eta ardi guziek ere badakite badirela, urte bat huntan, he-

galik gabeko zonbeit arrano jeepa pizta hori osoki zimentatua nehi luketenak Larrun puntako telebista tresnerietarat aiseago heltzeko. Egia horren salatzea bekatu ote da? zoin ebanjelioaren arabera?

3. Saratar batek idatzi du "bide hori ahalkegarri dela". Hori deitzen da "zozoak beleari: ipurdi beltz!". Joka da dila bere herrian hartu emanetan eta utzi bakean Azkaine eta Azkaindarrak. Argi da hori, jauna? Guk ez dugu sudurrik sartzen auzo herrietan, zonbeit bezala.

4. Azkaindik Larrun puntarat badire asko bide, lehen partean. Bigarrenean bat baizik ez baita, mando bidea deitzen duguna. Lehen parte hortan bat da ofiziala, paper guzietan agertzen dena eta egundainotik ibili dutena Azkaindarrak, bai ira leketan, bai harri ateratze lanetan. Hainitzek lera bidea deitzen dugu.

5. Harrobitik Miramar-erat doan lur bide hori xehatua zen eta hainitz herriko ibilkarik (eta bertzek) arnegatua zuten bide hortarik pasatzea. Bertzalde, artzain eta potokazleak errenkura ziren gauza onik ez zela gehiago bide hori.

6. Horiek direla eta Larrungo malda landatzeko aukera ederra baliatuz, udaletxeak

erabaki du lur bide horren antolatzea.

Abiaduran, 2 patar tzar goxatu ditugu lehengo arrastoa pixka bat luzatuz eta bertzetan bidea gizendu tokiko lur eta harri nahasiarekin, zimenta eta azfaltarik gramo bat ere sartu gabe. Egiazko ekologista lana. Geroari buruz, bide fragil hori merkeago eta aiseago estatu pollitean atxikitzeko, zentzuzko erreka edo izaka bazterrean egin dugu, urak bere tokia izan dezan. Denetan bezala.

7. Gaur egun, bide hori atzo baino eztiago, goxoago eta maltsoagoa da. Gorputzeko edo osagarriko problemak dituzten hainitz ibilkarik, Larrungo lehen maldan jadanik ibilki dire, puntarat joaiteko pretenzionerik gabe. Beheraxago hartzen dute beren mendi gozamena, denek bezala merexi baitute. Patar zailetarik ibili nahi dutenek badiutze bidexkak eta nasaiki. Bainen, ez dugu hainitz ikusten halakorik. Balentria mihi puntan eta gero tirrit. Potokazle eta artzainak uros dire bide zahar antolatu hortaz eta ez bide berriaz, hau zonbeiten gezur "animalekoa" baitzen, tzarkeriaz gogoatua fede onezko jenden zakuan sartzeko (hitz

EKAITZA TABERNA

Asteburuetan kontziertoak

Bokadilloak eta pintxoak

San Migel auzoa (Osasun Zentroaren ondoan) • © 450991 • **DONEZTEBE**

ZORIONAK

ALZA MONPAS ORTZADAR RARREGI

HERRI

euskaltegiak

URRATS

SARAKO BARNETEGIA

xuxena litake: izorrazteko). Horra beraz, zazpi ponttutan, egiazko egia. Zonbeitek uste zuten herriko hauteskundeak hurbilduak zirela... Jadanik ahantzia zuten pasatu berriak direla eta orai behar dela guaitatu 2001garren urtea... Urrun da. Jainkoaren laguntzarekin, oraino gelditzen da aski denbora ehun eta ehun aldiz Larrungo maldetan ibiltzeko, lasaiki.

Lurbide zaharrea urratsak eginez, bai ttipi-ttapa, bai lasterka, bakotzak bere neurria hartuz. Hori da egiazko zuzen bidea, denen bidea. Zoin urrun garen turismo eta bertze tetelekeriez!

AZKAINGO HAUTETSIAIEN IZENENEAN
ANDDE LUBERRIAGA ALKATEA.



Behingoan, alde hemendik!!

Behin eta berriro Goardia Zibila gu beldurtu nahian dabil; oraingoan, orrixa batzuk erabili ditu. Aurrekoetan, berriz, pintadak ("Abonos y fertilizantes Lasa y Zabala, lo mejor para el campo"), leku baztertu eta ilunetan, beren ekintzak zigorrik gabe geldi daitezen, paratutako kontrolak, izaera eta mota guztietako gehiegikeriak, etab... Honekin, berek duten profesioarekin loturiko izaera ustela era-

kusten dute. Hau guztia armada, polizia eta Goardia Zibilaren ibilbide faszistak frankistarekin lotzen badugu, erraz aski ulertuko ditugu Elizondoko ahoartelaturik dauden Goardia Zibilek pintaden bitartez egindako adierazpenak: "Avenida Hitler, Franco, Arriba España". Hauez gain, militante abertzaleei eta Herri Batasunakoei egindako heriotz mehatxuak daude; hauek Elizondoko karriketan eta gure Baztango, baztandarrona! ez zuena azken orrialdetxo horretan nahi zenuketen bezala, bertze herrietan eginak dira.

Deustako ez zaituztegu behar, ez Baztanen ezta Euskal Herriko ezein lekutan ere. Euskal Herriko gizarte osoak du bere gogoan zuen iraganeko nahiz gaur egungo oroitzen mingarria, lazgarria, basatia. Guk Askatasuna dugu maite! Aske izateko borrokan segituko dugu, eta, jakizue, gure askatasunarekin batera gure herri eta haranetatik zuek kanporatzea etorriko dela. Nola yankiak Vietnamera, halaxe igorri zaituztete Euskal Herrira; ordaindutariko astakiloak bazinate bezala. Hala ere ez duzue malkurraziko herri honen askatasun nahia! Gure dugun herri honek, Euskal Herriak, bere askatasunaren alde

segituko du borrokan, Autodeterminazio eskubidearen bitartez, hauxe baita egiazko Bake Alternatiba eta gure behar sozial, politiko nahiz kulturalak garatzeko bide bakarra, lortu egingo dugu Euskal Herriaren lurralde-batasuna eta independentzia.

Zuen eskupulu ezaren eta agintzen dizueten nahiz zuek betetzen duzuen egin-kizunaren ondorioa da, egin-kizun errepresiboa, "Pitxi" bezalako langile baten heriotzea eta honetan duzuen ardura zuzena salatzen dugu, haizeak botatuko zuhaitza karreteran egonda eta zuek hiru orduz lehenagotik horren berri jakinda ez baitzenuten deus egin eta

halaxe gertatu zen heriotz-istripua. Halaber, herrietatik barna zuen patroletan, "Rambo"ren antzera, ziztu bizian egiten dituzuen joan-etorri horiek eta jendea harapatu nahi horiek salatu nahi ditugu. Ezin duzue ikusi gure alaitasuna bestan gaudelarik. Behin eta berriro saiatzen zarete gazteriaren kontra, orokorrean, eta gure aldekoak diren pertsonen nahiz militanteen aurka; salaketa faltatuak, kartelak eta pankartak errez, erretentzio eta atxilotak, eguneroko eta etengabeko gehiegikeriak... Hala ere, jakizue gure herriek inolako zigorrik jaso gabe egiten dituzuen soberakeria hauei erantzuna emanen dietela. Erabaki sendoa hartu dugu: zuek Euskal Herrikan pora igortzea; egun hori handia izanen da Euskal Herriaren askatasunaren bidean.

Alde hemendik! Indar zapaltzaileak kanpora! Euskal Herria askatu!

BAZTANGO HERRI BATASUNA



Nardatuta gaude!!

Bai, eltzetuetaz nardatuta gaude. Nork erranen zuen Etxalarren egoera honetara ailegatuko ginetik. Egia erranta, kalamidade haue-taz eta hauen jokaeraz ezin

gehiago esperatu. Ohartu zareten bezala, egu-nero ditugu kontrolak gure karreteran. Herria okupatzen ari dira, Patrolekin egun guzian herriak barrena, osatuetan sartzen probokazio gisa (bestetako azkeneo egunean "foilona" armatu zuten), arratsetan kartelak kentzen...

Kontrolak normalean bidegurutza doaien karreteran paratzen badituzte ere, Herrian bertan paratzeko ailegatu dira. Orain dela gutti, enkaputxatuta eta metrailetak eskuetan zituztela, plaza eskinean kontrola paratu zuten, larunbat arrats batean.

Ez ditugu atzendu Berako Nafarroako Oinezeko gertakariak. Ezin atzendu Mikel Zabaltza. Ezin atzendu hainbertze euskaldunek beraien eskuetan sufrututako torturak. Ezin atzendu indar errepresibo eta okupatzaile bat osatzen dutela. Ezin atzendu eltzetuek euskaldunak zanpatu eta espainol bihurtu nahi gaituztela. Ezin burutik kendu Galindoren izena.

Gure hizkuntza, kultura eta herriaren defentsan jo ta ke eltzetuek Euskal Herriak bidali arte!!

ETXALARKO HERRI BATASUNA



GORDE ZURE AZKEN 1200 PEZETAK

EKAINAREN 1 AN

XORROXIN KONTZERTUAK

IRAKURLEAK MINTZO

Munizipala Zubietan?

Azkeneko urte hauetan sumatzen da marmuri franko herrian aparkatze arazo dela medio.

Martxoaren 25ean Udalak, papera baten bidez, bere iritzia eman du. Aldrebeskeria egietagatik edo ez dakit zergatik, batzuetan atzetik aurrerantz irakurtzen dut eta paper honek suerte edo desgrazia hori izan du.

Fetxa eta alkatearen sinadura utzita, azkeneko esaldiak (letra haundietan) horrela dio: "ongi aparkatzen badugu, ez dugu udaltzainen beharrik izanen Zubietan". Honetan arrazoia du alkatearen idatziak, hau da esatea bezala: "Burukominarik ez bada ez dago aspirina beharrik" edo hemengo zahar batek esaten duena: "hori bagenekien".

Atzeraka jarraituz, bigarren esaldiak honela dio: "udalak ikusten badu *hilabete-ko epean* ez dela arazoa konpontzen udaltzain bat hartzera behartuta ikusiko da, eta hori herriak ordaindu beharko du".

Duela bizpahiru urte estalpean egin zen batzarrean, besteen artean aparkatze-ari buruz ere mintzatu omen zen eta Tomas Otxandorena (orduan kontzejala eta gaur teniente alkatea) arrazoi bera bota omen zuen

bertan. Arrazoi hau entzunda galdera hauek egingen dizkiot neure buruari:

- Nori ematen diozue hila-bete bateko epea, herritar guztiei edo zuen buruari?
- Ez al da gehienbat udal-tearean erresponzabilitatea arazo hau konpontzea?
- Zergatik egon zen zaret behartuak munizipal bat hartzera? Nork behartzen zaituzte?

Esaten du baita ere papera honek: "Herritar guzitek behartuta gaudela ordenantzak esaten duena betetzera". Esaldi hau asko gustatzen zait, baina nere galdera hauxe da: Udalekoek errespetatzen dituzte beraiek onartutako lege eta seinaleak. Begira Tomas, nik ezin dut papera hau serio hartu, ez diot itxurarik ikusten munizipal eta arrazoi xeblere hoiei ez dakit hila-bete epean konponduko den arazoa, eta pasatzen denba pasatu, ni ziur nago Zubitarrok ez dugula munizipala ordaintzeko lanik izanen (ez baita udal-tea auzartuko holakorik egitera). Arazo hau konpontzeko ideia bat edo beste emango nuke, baina hasteko hauxe esanen nioke Otxandorena jaunari: atzendu munizipala eta marmuria eta hartu zezena adarretatik, bestenaz arazo hau Goenkalete-

lesaila baino luzeagoa bihurtuko da.

Akitzeko, hemengo martxa ikusita hurrengo mendearen haserako arazo hau konponduta balego konformatuko nintzateke. Ikusten duzun bezala, ez dut asko eskatzen.

ZUBIETAKO PAIXANA BAT

**198.000 min**

Atzo gose greba, gaur txarpeo; bihar...? Presoek ez dakigu zergahiago egin gure eskubideak errespetarazteko.

Bitartean zu (zuek), maitia, sofritzen: 6 urte trenetan, busetan, autoan. 198.000 km. Bortz buelta Munduari.

Milaka ordu bideetan, gartzela aintzinean; kontrolak, istripuak, irainak... kontaezinak, malakoak berak bezala. Preso sobera Euskal Herrian, preso sobera Euskal Herriatik kanpo. Min haundiegi, min ixila, ixildua. Non daude politikari eta komunikabide "demokrata horiek"? Ustelak!

Kalean, herritarrengan dago hau guztia alda dezakeen indarra. Erabili! Erabil ezazuen hemen barruan zerbait larriago gertatu baino lehen. Eraman gaitzazue Euskal Herrira!

JOXELU ETXEBERRIA LEKUONA
MONTERROKOKO GARTZELATIK.

**Igantziako alkateak eta Oskar Txoperenak idatzitakoari buruz**


ttipi-ttapan argitaraturiko Oskar Txoperena eta Igantziako Alkate jaunaren eskutitzak erantzunez EAJ-PNV-ko udal taldeak hurrengoa adierazi nahi du:

1- Otsailaren 6an izandako udalbatzan bi zinegotzi HBzale ez egoteaz, bere ausentzia HBren eritziaren aurka Elkarriren alde ez bozkatzeko izan zelakoan ginen. Zinegotzi horietako bat Elkarri kide eta aportante izateari ez diogu inolako bainarrik jartzen, baina zure idatzian ez duzu ukatzen jaun

horiek HBrekiko duten lotura, eta horregatik gure us-tean jarraitzen dugu. Bide batez, udalbatzetara joatea derrigorrezkoa dela gogoratu behar dugu, eta udalbatzetarako deialdietan ere hori aipatzen da.

2- Jakin badakigu udalbatza eztabaidatzeko lekurik aproposena dela -horretan ados gaude- eta gure eskubidea erabiltzen dugu. Igantziako udalbatzan gure ez-partehartzeak ez zигun gure lehenengo eskutitza idaztarazi -gu bai egon ginen eta- baizik eta ttipi-ttapa dituen irakurleei, gure ustez, oso-oso ez zen berri bat osatu eta zehazteko nahiak. Dena den, ttipi-ttapa eta bere berriemileek duten adierazpen askatasuna beti errespetatuz, ikuspuntu hori ematea ezinbestekotzat jotzen genuen, eskubide bat eta irakurle-goarekiko beharra zelako. 3- Bertzaldez, gure taldeak udal-tean ia ez duela lanik egiten errana da. Eta hau egia ez dela begi bistan dago Igantzin eta edonori erakutsi dezakegu testigo eta frogaz. Bertzerik gabe, gure alde-tik bukatutzat ematen dugu eztabaida.

JOSE JAVIER URTXEGI
IGANTZIKO ZINEGOTZIA



LESAKA

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

AHORRO-BERRI
janaridenda

Legia 4 • BERA

Igantetan
ere irekia**ALZURI**

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 63 03 70 • BERA



ARGIA 96-IV-28

«Ez gara euskaraz bizi; kontzientzi maila altua dago, baina diskurtsoan soilik»

Amaia ZUBIRIA

Kantaria
Argia 96-IV-28

bertan kultura batzordeko ardura hartu nuelarik».

Mariano IZETA

Elizondoko erlojulari eta berriketaria
Argia 96-IV-21

«18 urterekin EAJn bazkidezu nintzen. 1936ean ederki aski altxatu nuen karneta kaxoiean altxaturik. 1957-58 urteetan Elizondoko alkatea izan nintzen. 1977ko hauteskundeetan Baztango zinegotzia aukeratua izan nintzen EAJren zerrendetan,

«Nafarroako Mendialdean eta Erdialdean familia modelu bera zen, familia tronkala deritzana. Familia horretan, seme edo alaba nagusiari etxalde osoa ematen zitzaion»

Fernando MIKELARENA

Historiagile eta irakasle
Beratarra
Diario de Noticias 96-V-1

◆ **Zer nahiago, inauteriak ala Sanferminak?**

- ◆ Inauteriak.
- ◆ **Sanferminetan, lana edo besta?**
- ◆ Hiru egunez ahalik eta bestarik haundiena egin eta bi egunez lana.

◆ **Ostatuko lana edo fabrikakoa?**

- ◆ Bestetan ostatua, bertzenaz fabrikako lana. Aste egunez ostatuan nazkatzen haiz!

◆ **Ehizia kirola da?**

- ◆ Bai, bai, bai... Basurde ehizia behinik bein bai. Uso ehizia ez horrenbertze.

◆ **Bertze kirolik egiten duk?**

- ◆ Ez, ostatuz ostatu poteoa bertzerik ez.

◆ **Neska bati, lehen begirada nora?**

- ◆ Maja den edo ez begiratzen diat lehenbizi.
- ◆ **Gurasoekin bizi edo hire gisara?**
- ◆ Andregaiia eginez gero kanpoan, bertzenaz gurasoekin ederki bizi nauk.

◆ **Musika talde bat?**

- ◆ UB 40.

◆ **Asteburuetan mendira pasiatzera edo parrandan ibili?**

- ◆ Asteburua parrandan ibiltzeko eta astelehenean, bestondoa pasatzeko, mendira pasiatzera.

◆ **Azken bidaiia nora egin duk?**

- ◆ Cubara, eta hagitz gustora pasatu niken.

◆ **Bueltatzeko asmorik?**

- ◆ Bai, segidoan. Aurten bertan joanen nauk.



Xixo AIESTARAN

Lesakako gaztea

Errekalde ostatua

Ortiziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

BIDASOA

OPTIKA

**OPTIKO
OPTOMETRISTAK**

Nafarroa Ibilbidea, 21
Tfnoa. (943) 63 01 93
IRUN



- IKUSMENAREN AZTERKETA OROKORRA
- UKIPEN LENTEEN ADAPTAZIOA
- HAURRENTZAKO IKUSMEN TERAPIA
 - Estrabismoa
 - Begi Alferrak

DROGUERIA MOLINERO



• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak

Eztegara 19 • ☎ 63 02 40
BERA

Bera

Savera eta Alco saritu ditu Marketing clubak

Garapen teknologikoa eta produktuaren kalitatea nabarmendu ditu erakundeak

KRISTINA BOAN

Marketing clubak Nafarroako enpresa aitzindariak saritzen ditu urtero. Aurten goan Berako Savera eta Alco sari bana hartu dute.

1967az geroztik igogailuendako gidak egiten dituen Saverak bere garapen teknologikoari esker lortu du saria. Azken 30 urtean, camping eta jardinerako mobleak egiten dituen 'Manufacturas Alco' enpresak berriz, produktuaren kalitateari dagokion garaikurra irabazi du. **Bortz irakasle musika eskolarako**

Isidoro Fagoaga udal musika eskolak aldi baterako 5 irakasle (klarinete-saxofoi, gitarra klasikoa eta elektrikoa, perkusioa, tronpeta-tronboia eta txistua) kontratatuko ditu. Eskerak maiatzaren 10a baino lehen aurkeztu behar dira idazkaritzan.



Alcoren izenean Imanol Subijana zuzendari komertzialak —ezkerretik hirugarrena— eta Saveraren izenean Alberto Quintas zuzendariak —Alliren ondoan— sariak hartzerakoan

Arg.: D. Noticias

Nafarroako Aspaceren 25. urteurrena ospatuko dute Uxanen maiatzaren 24tik 26ra

Nafarroako Aspacek hogeitabortz urte egin dituela eta, Uxane zentroak hainbat ekitaldi antolatu ditu maiatzaren 24tik 26ra doan astebururako.

Ortziralean, goizeko 10etatik 12etara eta arratsaldeko 2,30etatik 4,30etara Uxaneko ateak joan nahi duen edonorrentzat zabal-

duko dituzte, bertako funtzionamendua ikus dezaten. Arratsaldeko 7,30etan Nafarroako Aspaceko zuzendaritza batzordeak solasaldia eskainiko du Kultur Etxean, "Bortziritako gutxituen historia, gaur egungo egoera eta etorkizuna" izenburupean.

Larunbatean, eguer-

diko 12etan meza izanen da Jesusen Bihotzako kaperan eta 2etan bazkaria Euskaldunan.

Ortziraletik igandera bitarte, Uxanen egin dako eskulanen erakusketa burutuko da Kultur Etxean. Ortziralean 5etatik 7,30etara eta larunbat-igandean, 11etatik 1etara eta 5etatik 8etara.

ttipi-flash

❖ Musika sakratu

kontzertua eskainiko du Tim Fisher musikariak Kultur Etxean. Emanaldia, maiatzaren 20an, astelehena, arratsaldeko 8etan izanen da.

❖ Udal errolda

Arantxa Iriarte, Laura Iantzi eta Esther Irazoki hilabete batez arituko dira udal biztanleen errolda edo padroia berritzen.

❖ Mendi

probetxamendua Lizanabar inguruan 2.103 m³ zur egiten duten 2.776 insignis pinu probetxeko enkante deialdia egin du Udalak. Hasierako prezioa 12.197.400 pezeta-koa da.

❖ Gazte Jokoak

azken txanpan sartuak dira. Maiatzaren 11n zabor bilketan eginen da mendi eta erreketan. Maiatzaren 18an, bukarabesta baino lehen talde bakoitzaren parodia izanen da. Parthartzaileek —gutzira, 12 talde eta 100 lagunetik goiti— afaria izanen dute.

BOAN
TAILERRA
CITROËN Banatzailea
AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 63 06 23 • BERA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Poliillen kontrako tratamendua

BERA
DESINFECCIONES
☎ 63 01 55
BERA

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Aitzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

F. MARITORENA
Mendi eta lorategi garbiketak
Tfnoa.: (948) 63 11 99 - BERA

Lesaka

130 dantzari bildu ziren igandean ospatutako IV. Euskal Jaian

Sanferminetako azal eta kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea maiatzaren 24an akabatuko da

AITOR AROZENA

Lasarteko Erketz, Amurrioko Aresketa, Iruñako Oberena eta Lesakako Tantirumairu dantza taldearen parte hartzearekin burutu da igande honetan Euskal Jaiaren laugarren edizioa. Guztira 130 dantzari -150 lagun musikariak eta arduradunak kontuan hartuz gero- izan ziren Lesakako ekitaldian. Txistularien diarenaren ondotik, talde guztiak karrizak karrika ibili ziren beraien dantzak erakutsiz. Bazkaltzeko neska-mutikoak etxeetara joan ziren, musikari eta arduradunak Kattura joan ziren bitartean. Bazkalondoren desfilea egin zuten eta Tantirumairu taldeak Zubigainekoa dantzatu zuten. Ondoren, plazan, talde guztiak beraien emanaldia eskaini zuten eta egun arrakastatsua German trikitilariaren doinuekin akabatu zen



Tantirumairu dantza taldeak, ikastola eta Herriko Etxearen laguntzaz antolatutako Euskal Jaiaren laugarren edizioak hainbat dantzari eta ikusle bildu zituen.

Artxiboa

San Ferminetako programarako azal eta kartel lehiaketarako lanak aurkezten ahal dira

Maiatzaren 24an akabatuko da aurtengo Sanferminak iragartzeko kartel eta programaren azal lehiaketarako lanak aurkezteko epea.

Azalak, 25x20 zm.koa izan beharko du, bi zentimetro t'erdiko ertza bazterretan eta irudia edo argazkia

barnean sartuz. Lehenbiziko saria 35.000 pezetakoa eta bigarrena 15.000 pezetakoa izanen dira.

Kartelei dagokienez, 50x40 zm.ko neurria izan behar dute, zentimetro t'erdiko ertza utziz. 'Lesaka, 1996ko Sanferminak' agertu behar da derri-

gorrez. Sari nagusia 35.000 pezetakoa da eta 25.000koa bigarrena.

Lanak aurkezteko modua lehiaketa hauetan ohikoa izanen da: sobre batean lana goititzen batekin eta bertze batean egilearen datu pertsonalak azaldu beharko dira.

ttipi-flash

❖ Aurtengo udal aurrekontua

behin betikoz onartu du udalak, PNV-ren aldeko botuekin. Epe barnean, alegazio bakarra aurkeztu zen, HBrena eta bertan, futbolzelaia, lana, Kultur Etxea eta nazioarteko elkartasunari buruzko zenbait eskaera egiten ziren.

❖ Ebasketak

Azken aldian herriko zenbait bazterretan ebatsi dute. Sasaki-Zar ostatuan sartu eta musika aparatua eraman zuten, hainbat diskarekin batera. Legarratik kutxan zuten dirua ebatsi zuten eta Atxaspin ere sartu ziren, baina nagusiek soinua aditu eta joan zirenean hiru lagunek ihes egin zuten.

ARRANO

OSTATUA

© 627597 • LESAKA

koxkonta

Sagardotegia zabalik

Deitu enneserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

KOXKILA

OSTATUA

Zarandia, 4 - **LESAKA**

ETXALAR

Dirulaguntzak eskatzeko lan-zerrenda egin du udalak

Baserrietarako bideetako zola berritzea eta gas tuboak sartzea, nagusienak

PELLO APEZETXEA

Gobernuaren bidez etortzen da batzuetan sosa herriko lanetarako. Gaur egun bada bertze iturria ere, Europatik heldu den dirua bideratzen duena. Horretara ere jo behar duela, bada ez bada ere, eta Herrian ikusten dituen beharrak zerrendatu ditu Udalak. Baserrietako 15 kilometro zola moldatzea: 85 milioi pezeta. Autoentzako aparkalekuak: 18 milioi. Espaloiak moldatzea: 15 milioi. Herriko Etxearen moldaketa: 28 milioi t'erdi. Baztan eta Zugarramurdiko bidea: 38 milioi. Zabaleta mendiko landaketa: 39 milioi. Arbozta mendia egokitzea: 15 milioi. Argi-ingar eta te-



Ekainaren 9an burutuko den IV. Gasna Feriaren antolaketan buru-balardi murgilduta dabil Altxata kultur elkarte

Artxiboa

lefonoko hariak lurperatzea, gasen hodiak edo tuboak ere sartuta: 60 milioi. Denetara 298,5 milioi. Hori da Udaltzak herrian beharra ikusten duena.

Eta eskatu, Cederna-Garalurrera eskatu du laguntza, ea Europako dirutik zerbatik ailegatzeko den.

❖ **Argi-ingarreko** hariak lurpean para-

tzeko baimena eskatu dio Iberdrolak Udalarari Bekolanda auzorako. Baimena ematez gain, Telefonikari ere gauza bera egin dezan eskatuko dio.

Personaia



Patxiku Irisarri Altxatako Koord.

Apirilaren 28an burutu du Elkarteak urteko Batzarrea. Zer izan da bilerako gauza nabarmenena?

Jende kopurua. Bortz lagun bildu baiginen, bat ez gainekoak Juntakoak.

Kezkaturik utzi zaitu horrek?

Egia da egun txar samarra zela jendea biltzeko. Nafarroaren Eguna Baigorin, Errandonearen pilota partidua... Eta herrian bertan ere bazen mendirako ateraldia. Jendea sakabanatu egin zen, baina nahigabe eta kezkarren harrak autxiki egiten dituz barnean.

Zer da Elkarteak sortzen dizun kezkarik haundiena?

Ekainan antolatuko diren Kultur Egunak, Gasna Feria batez ere. Pauso franko eman behar baita, jende franko mugitu. Bertzea zera da: zer gehiago antolatu.

TXIRULA
Albistur, 39-K • ☎ 627542 • LESAKA
bitxikeriak • opariak • enmarkazioak

« **USOA** »
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea

Lagun artean goxo-goxo egoteko leku egokia

☎ 635290
ETXALAR

ALBERTO

ZURE MODA DENDA MARKARIK ONENEKIN:

- Daniel Hechter
- Caramelo
- Island
- Genfis
- Marithe François Girbaud
- Bonaventure
- Replay
- Diesel
- Guess
- Zone

GONBIDATU ETA GIZONGAIENDAKO TRAJEAK
Fuenterrabia 6, Tfnoa. 943-615815 IRUN

Igantzi

Udaleko aurtengo aurrekontua ia 66 milioi pezetakoa izanen da

Heldu den astelehenean, maiatzak 13, izanen da Aralarreko San Migelen bisita

OSKAR TXOPERENA

Apirilaren 26an egindako bilkuran aho-batez onartu zuen udalbatzak aurtengo aurrekontua. 1996eko eginbeharrak aintzina eramateko 65.860.903 pezeta erabiltzeko asmoa dute zinegotziek. Dena den, hamabortz egunez egonen dira jendearen aintzinean, nahi duenak erreklamazioak egin ahal izateko. Joan den urteko kontuak izan dira erreklamazioak izan ez dutenak, eta behin betiko onartu zituzten PNVko zinegotzien abstentzioarekin.

Igerilekuaren enkantea

Aintzineko alean ez geunden oker igerile-



Ederki pasatu zuten eskolako haurrek Xorroxin irratia Igantzin egon den aste horretan. Lehendabiziko egunetan urduritasuna nabaritu bazitzairen ere, azkenerako ezagun zen ederk trebatzen ari zirela

Argazkiak: Oskar

kuaren mantenimendu eta kudeaketaren enkantea abudo aterako zela erran genuenean, proposamenak udaletxean aurkezteko azken eguna maiatzaren 20a izanen da eta. Kontratazio mahaia Jose Javier Urtzegik, Ramon Retegik, idazkariak eta

alkateak berak osatuko dute. Baldintzen berri jakin nahi izanez gero, Herriko Etxera joatea duzue hobere-na.

San Migel Igantzira

Heldu den astelehenean, maiatzak 13, eginen du urteroko bi-

sita Aralarreko San Migelek Igantzira. Goizeko 9,30etan izanen da meza eta lehenxeago eginen zaio ongi etorria eliza atar-ian.

San Juan eguneko besta

Jubilatuena besta prestatzeko lanetan ha-

siak dira Zahar Etxeko juntakoak. Orain arte, Zahar Etxerik ez zenez, Herriko Etxeak eta Biltokik antolatzen zuten erdibana besta egun hori. Hemendik aintzina, berriz, euren gain izanen dute tradizio bihurtu den egun horren antolaketa lana.

IRU BIDE
ERRETEGIA

Tfnoa: 637127
LESAKA

ZALAIN
JATETXEA

Zalain Auzoa
63 11 06
BERA

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Boda eta banketeak ematen dira

XATURETXEA

ZALAIN
JATETXEA

Tfnoa: 63 70 27 **LESAKA**



ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guzietako mobleak

Kalitatea prezio egokian

35 urteko esperientzia zure zerbitzura

- Jangelak, tresilloak, gazteendako mobleak, auxiliarrak...
- Paretako armarioak, zure logelarako egokiak eta neurrira eginak
- Kutxa, platero, eserleku, etabarretan aukera zabala.
- Moble zaharrak eta zaharberriak

ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - **LESAKA**



Herriko neska-mutikoak kirol txapelketetan ari dira

Batzuk Nafarroako Jolas Kiroletako proba konbinatuan eta Eskolarteko pilota txapelketan bertzeak

GARBIÑE ETA ELIXABET

Arantzako eskola-ko haurrek Nafarroako herri kirol txapelketan parte hartzen ari dira. Proba konbinatueta bakarrik eman dute ize- na eta hamabi-hamairu urteko neska-mutikoak ari dira norgehiagokan. Eskolatik erran dutenez, aurten sokatiran aritzeko ez dute talderik atera bai- na proba konbinatuan lan bikaina egiten ari dira, dagoeneko fina- lera iritsi baitira. Finala Arantzan bertan jokatuko da. Animo!

Eskolarteko pilota txapelketa

Eskolarteko pilota txapelketa bat ere jokatzen ari da. Txapelketa Nafarroako Pilota Fe-



Bartz urtero bezalaxe, udal errolda berrituko da eta herriko populazioaren berri zehatzagoa izanen dugu

Artxiboa

derazioak antolatu du eta hortan Arantzako gazteak ere parte hartzen ari dira. Denetara hamasei lagun daude, zortzi bikote beraz. Partiduak Doneztebe,

Bera, Elizondo eta Arantzan jokatzen ari dira.

Udal errolda berritzea

Bartz urtetik behin egiten den udal errol-

da edo padroia berritzea aurten tokatzen omen da. Lan horretarako, herriko bartz lagunek eman zuten ize- na, baina hilabete ba- teko lanpostu bakarra

dagoenez, azkenean zozketa egin behar izan zuten. Jabi Larretxea izanen da aurten errolda berritze lanetan arituko dena. Herriko populazioaren berri izan dezagun, zabal ezaio- zue atea.

Herriko lanak aitzinera segitzen dute

Nahiz eta herrian buila dexente ateri den obren gelditzearen in- guruan, erran behar da lanen lehenengo fasea bukatu dela.

Ur-sarearen aldatze lanak ia bukatuak daude eta orain zolabe- rritze lanak hasiko omen dira. Beraz, la- sai egon gaitezke, la- nak beren martxan ai- tzinera segituko baitu- te.



KIROLAK ZELA
Altzate 6, ☎ 63 05 98
BERA

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA


LABEZAR
☎ 631076 • BERA



LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera ☎ 630735
Irun ☎ (943) 622305

LEGARRA
Legarra, 9 • ☎ 63 70 30 • LESAKA

ESKAINTZAK
Maltazaren 31 barte
baliagarriak dira

- Petrus' gapadora 1.584 Pta.
- Petrus' taladroa 1.145 Pta.
- Broche' margo estutxa (67) 1.470 Pta.
- Broche' margo estutxa (86) 1.870 Pta.
- Telefono listina 4 anillakin 735 Pta.
- Epping 3000' errotuladorea 277 Pta.
- Pilot' bohiratua 1.285 Pta.
- Kanguro' tartia karpeta (20 funda) 5.45Pta.
- Kanguro' tartia karpeta (40 funda) 780Pta.
- Carioca' errotuladore kutxa (36) 696 Pta.
- Stabito' errotuladore fluoreszentea 143 Pta.
- Super Glue-3' pegamento tuboa (5 gr.) 655 Pta.

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hobereena

Frexkuena zugandik hurbilago

Bittiria, 67 - ☎ 637264

Sunbilla

Hirurteko plangintzarako lanen zerrenda aurkeztu du Udalak

Ia 100 milioiko gastua aurrakusten da, horietatik 39 baserrietarako bideak konpontzeko

IXABEL ETA JOSUNE

Nafarroako Gobernuaren 1997-99 Hirurteko plangintzan sartu nahi dituen premiazko lanak erabaki ditu Udalak. Lehena Herriko Etxea konpontzea izanen litzateke, 42 milioi pezetako aurrekontuarekin. Bigarren lana edateko ur-hornidura ziurtatzea egonen zen. Horretarako ur-deposito berria egitea (12 milioi) eta Uasol iturria konpontzea (3 milioi) beharrezkoak dira. Bi karrika berrien azpiegitura lanak ere egin beharko lirarteke, 15 milioi pezetako aurrekontuarekin.

39 milioi baserri bideetarako

Baserrietara joate-



Baserrietara joateko bideak konpontzeko 39 milioi pezeta bideratzea eskatuko dio Herriko Etxeak Nafarroako Gobernuari

Artxiboa

ko bideak konpontzeko 39 milioiko aurrekontua aurkeztu dio Herriko Etxeak Nafarroako Gobernuari. Indinabaitatik Iragietarako zatiaren aurrekontua 4 milioikoa da,

Epentzatik Arretxenbodarako tartearena 10 milioi, Borteneatik Txurruvietarako zatia 5 milioi, Aldamenekobordako gurutzelekutik Konstanzenekobordara 5 milioi, Ira-

gietatik Ermitagoiara 5 milioi eta Iturburuatik Galtzatenbordara 10 milioi pezetako aurrekontua. Bertzalde, Herriko plaza, medikuaren etxe aitzinean konpontze-

Alternatiba demokratikoa

Herri Batasunak antolatua, larunbat honetan, maiatzak 11, arratsaldeko 6etatik aitzine a 'Alternatiba demokratikoa' aztertzeko bilera burutuko da Herriko Etxeko Batzargelan.

Ebasketa

Harategiko baje-ran entsaiatzen duen Doneztebeko rock taldeari ebasi diote berriki. Bi gitarra eta bertzelako tresnak faltatu zaizkie.

ko 30 milioi pezetako aurrekontua aurkeztu da.

Hau da Herriko Etxeak aurkeztutakoa, orain ikusi behar Nafarroako Gobernutik zenbat ailegutzen den.



SANTAMARIA Jatetxea

Obrak irauten duten bitartean sarrera gibleko aldetik. Asteburuetan Itxita dugu

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



GAZTANDEGIA Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA



TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziando, gatzainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

Doneztebe

Udaberriko Feria maiatzaren 10ean ospatuko da

Frontoi-ostatu eta igerilekuko zerbitzuak enkantean aterako dira

TXEMA ALDABE

Gaur egun, feriak urtean bi egunetara mugatu dira eta udazkenekoa jendetsuena bada ere, ortziralean, maiatzaren 10ean, ospatuko denak azindak gustokoak dituen jendea erakarriko du.

Behiak (esnetakoak, haragitakoak eta aretzeekin, gorriak eta suitzak), ahariak, zaldiak, behorak eta astoren bat edo bertze ikusi, erosi eta saltzeko aukera izanen da. Erran behar da, egun honek garai batekoak ikusita aunitz galdu duela, baina mantendua egin da behinpein.

Frontoi-ostatu eta igerilekuko zerbitzuak enkantean

Frontoi-ostatu eta igerilekuko zerbitzuak subasta edo enkantean ateratzea erabaki du Udalak, norbaitek hartu nahi baditu. Proposamenak egiteko epea maiatzaren 14ean akitu



Udaberriko Feriak ez du izugarritzko jende kopurua bilduko bainaazienda gustokoak dituzten hainbat abeltzain bilduko dira Doneztebeko feria plazan

tuko da. Urteko guttieneko diru kopurua edo kanona 600.000 pezetakoa izanen da, BEZ gabe. Urtebeteko epea izanen du kontzesioak eta borts urtera luzatzen ahal da. Behin behineko fidantza berriz, urtean 12.000 pezetakoa da. Aurkezten direnek egingako iradokizun

edo sugerentziak kontutan hartu eta baloratuko ditu Udalak.

Bordeleko feriak autobusez

Bordele edo Burdeoseko feriara autobusez joateko bidaia antolatu du CANek heldu den larunbaterako, maiatzaren 18rako. Irteera goizeko 6,45e-

tan egingen da eta bidaiaren kostua 1.000 pezetakoa izanen da.

Feria hau, Europako garrantzitsuenetakoa da eta, bertan, azienta, nekazaritza, tresneria, informatika, etxebizitza, etabarrez antolatutako erakusketak izanen dira ikusgai. Izen ematea CANeko edozein bulegoetan.

Industri mankomunitateak la 41 milioikoa aurrekontua izanen du

Hamabortz egunez ikusgai egon ondoren inolako alegaziorik aurkeztu ez denez Doneztebeko Industri Mankomunitatearen aurrekontu arrunta behin betirako onartu du Herriko Etxeak.

Erakunde honek, urtean zehar gastue-tarako izanen duen dirutza 40.748.137 pezetakoa izanen da. Dirusarrerak tasen bidez (5.406.137 pezeta) eta inbertsioen ordainketarengatik (31.267.600 pezeta) eskuratuko dira gehien bat. Gastuak transferentzietan (25 milioi, inbertsioetan (3.874.400) eta ondasunen erosketan (3.652.685) joanen dira.

JUAN J. PIKABEA

ARROPA KONFEKZIOAK

GIZONEZKOENDAKO

JOSTUNGINTZA

Ameztia z/g, Tfnoa: 45 16 70
DONEZTEBE

Aukera haundia galtza bakerotan

- **BONAVENTURE** (sei modelo ezberdin)
- Pilotariendako galtza xuriak, **ASTORE** markakoak.

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA

MERTZERIA

Parrokia 6
Tfnoa: 45 04 63
DONEZTEBE

Malerreka

Zubietan Ditxiloko erreka urei probetxua atera nahian dabilta

Ingeniari batzuk neurketak egiten ibili dira eta herritarrek beraien ezinegona erakutsi dute dagoeneko

AINHOA MUTUBERRIA

Egun hauetan, kanpotar batzuk zoko mirandan aritu dira Zubietan. Ez dute baimenik eskatu ezta abisatu ere. Bi ingeniari edo, kamara batzuekin zebiltzan, ez dakit zer kristo egiten. Alkateak, haiengana jo zuen azalpenak eskatzera eta haiak ederra bota zioten!: zilegi zela egiten ari zirena. Hura polita berriz! Dirudienez Ditxiloko erreka ura gozo-gozoa da eta penagarria omen da mala-maneran galtzea. To! Horrela darama gure bizi osoa, baina jakina, interesak erditik dabiltzanean, gauza onik ez. Proiektu bat egiten ari dira, deustarako erabiltzen ez den

ur horri probetxua emateko. Zertarako? Hori da ez dakiguna, elagia, ez baitute deus ere esaten. Noizbait argituko digute zein den arazoa. Dagoeneko herriko jendea mugitzen hasi da, datorrenari aurre egiteko. Pankarta bat eta guzti jarri dute erreka errepidearekin gurutzatzen den lekuan. Hau da bere erredua: "Errekak bizirik". Udalak denuntzia sartu du eta gazteek sabotai txiki bat ere egin dute. Itoitzen pare jarriko ote gara?

Ditxiloko erreka kanalizatu nahian omen dabilta, auskalo nora eramateko

Arxiboa



Bailara Lasaiak Kazetaritza lehiaketa

"Bailara Lasaiak 96" kazetaritza lehiaketa antolatu du Bertizko partzuergoak.

Komunikabideetan (telebista, irrati nahiz prentsa) 1996ko urtarrilaren 1a eta urriaren 31 bitartean argitaratutako lanak parte hartu dezakete eta lanak jasotzeko epea azaroaren 10ean bukatzen da. Sari bakarra 250.000 pezeta eta diploma izanen dira.

Lanak aurkezteko edo informazioa jasotzeko Bertizko Partzuergora jo behar da (592323 telefonoa edo 592275 faxa).

ttipi-ttapa
Gida 96



Ez galdu sekulan begi bistatik.
Den-dena eskeintzen dizu!

MariCruz
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - **DONEZTEBE**

BEINTZAko OSTATUA



Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN

JUANPE Granja, S.L.

- X Baserriko oilasko eta arraultzeen salmenta
- X Etxez etxe banatzen dugu

☎ 450412-450037
DONEZTEBE

SALDIAS ETXAGINTZA

igeltseritza orokorrean

Bainuak eta axuleio apainketak
Konpromezu gabeko aurrekontuak

tel.: 45 15 21 • 989. 70 13 69

muñeca de Trapo



IRUN

Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

Bixente Goñi, 'Janfri'ri omenaldia eskaini zaio igande honetan

IBAN ISASI

Apirilaren 19an, hiru urte kartzelaz kartzela ibili ondotik, Janfri epailearen aurretik pasa zuten banda armatuari laguntza

ematearen akusaziopean. Baldintzapeko askatasuna dauka ordutik hona, epaiaren zai dagoen bitartean.

Donostian, jaioterrian, apirilaren azken

aurreko astean egin zioten omenaldia.

Iturenen Bixente Goñik, Janfrik, Aurtizko ostatuan egin zuen ostalari lanagatik da ezaguna. Orain

kanpoan pasa duen denboraren ondotik, omenaldia egin zaio maiatzaren 5ean Aurtitzen. Herriko hiru auzoetako joaldunak, txistulariak, trikitala-

riak eta bere ostatuko garaian ezagutu zituen lagunak diosala egiteko aukera izan dute. Omenaldia herri bazkari baten bitartez bukatu zen.

Eratsun jendez hustutzen ari da azken aldian

L.O.


Eratsun gero eta tikiago gelditzen ari da jende kopuruari dagokionez. Izan ere, joan den urtean bezala jende asko hiltzen ari da aurten ere, bost orain arte. Azkenekoa Miguel Erasun izan da, 49 urte zituen, baina bapatean hil zen.

Berri txarrak alde batera utziz, aipatu behar da udaberriak gazteria bizitu duela eta ezkontzak ugaritzen ari direla. Apirilaren 28an Kristina eta Jon ezkondu ziren, maiatzaren 18an Begoña eta Jose Luisen txanda izanen da eta 25ean Pili eta Claudiok aldaretik pasatzeko asmoa dute. Ez pentsa, ordea, herriko hutsunea beteko dutela, Eratsundik kanpo bizitzeko asmoa azaldu baitute hiru bikoteek. Behinpein zoriontsuak izan daitezela opa diegu.

Beintzako ostalua errentan

Beintza-Labaiengo udalak errentan paratu du Beintzako ostalua. Errentamendua lau urterako izanen da eta enkante bitartez eginen du udalak eta proposamenak aurkezteko epea maiatzaren 9an akituko da

ERRENTA AITORPENA 1995



ERRENTA



AITORPEN
ZERBITZUA



AHOLKULARITZA PERTSONALA BEHAR BADUZU ZATOZ CAJA RURAL-ERA

Aitorpena egiterakoan zerbitzu eroso, bizkor eta eraginkorra aukera ezazu. Eraberean, zure Aitorpenean pertsonalki aholkatuko dizun zerbitzua aukeratu. Caja Ruralen zuri laguntzeko prest dagoen aditu taldea zain daukazu. Ez zalantza gehiagorik izan. Aurten zure Aitorpena Caja Rural de Navarran tramita ezazu.

AITORPENA
ERRAZTEKO
100 BULEGO
BAINO GEHIAGO
DITUGU NAFARROA
OSOAN ZEHAR



CAJA RURAL DE NAVARRA

Goizueta

Babes zibileko komenioa sinatu dute Nafarroako Gobernuak eta Goizueta eta Aranoko udalek

ESTEBAN AROZENA

Lehendakaritzako kontseilariak eta Goizueta eta Aranoko alkateek babes zibilariburuzko komenio bat sinatu dute berriki. Bertan esaten denez, erakunde sinatzaileen arteko harremanak sendotuko dira herri-tarren babes eta segurtasun maila gero eta hobea izan dadin. Edozein motatako larrialdiei garrantzia emanen bazaie ere, sute eta istripuen prebentzioa indartuko omen da gehien.

Babes zibilarekin erlazionatuak dauden zerbitzuen prestakuntza eta ekipamenduan kooperatuko duenaren hitza ere eman du Go-



Umore Onak antolatzen dituen mus eta truke txapelketek ohiko arrakasta lortu dute aurtengoan ere, 23 eta 25 bikotek parte hartu baitzuten, hurrenez hurren, apirilaren 20 eta 27an jokaturako partidetan. Musean Javier Lujanbio eta Jexux Salaberria suertatu ziren garaile, Felix Etxenike eta Joxe Mari Zubietaren kontrako finalean. Trukean berriz, Martin Huitzi eta Juan Apezetxea beteranoek eraman zuten lehen saria, eta Mertxe Perurena eta Xole Etxegia ama-alabak bigarrena.

bernuak. Horrela, salbamendutan eta suteen aurka erabiliko diren ibilgailuak berak emanen ditu, baita beharrezkoak diren transmisio tresnak ere.

Bere garaian Goi-

zuetako Herriko Etxean izena eman zuten 20 boluntarioen prestakuntzaren kargu, lehendakaritza saila eginen da. Aipagarria da Aranon ez dela oraingoz inor apunta-

tu bolondresen zerrenda honetan.

Alarma eta koordinazio zentroa SOS Navarra erakundearen da, eta burutuko diren zerbitzu bakarrak Iruñetik agindutakoak

izanen dira. Zerbitzua- ren egoitza berriz, Goizuetan kokatuko da, horretarako toki edo areto egokiak herriko udalak emanen baititu, komenioak dioenez.

Areso

Emaitza bikainak sokatiran eta eskolarteko pilota txapelketan

600 kilotan Euskadiko bigarrenak izan dira sokatirakoak

JUANA M^a SAIZAR

Hitzaldiak eta kirola bilakatu zaizkigu topagune azken aste hauetan. Eskolarteko torneoan parte hartzen ari diren Aresoko neska-mutilak kadete mailan eta emaitza oso onak orain arte egin duten lanean.

Aresoko sokatira taldearen emaitza ere azpimarratu behar da, dagoeneko bigarren postua eskuratu baitu-



te Euskadiko txapelketan. Konforme ziren finalerako saiikatzear-

rekin eta hara non, bigarren postua lortu duten 600 kilotan.

Herriko pilotari gaztetxoak ederki moldatzen ari dira eskualdeko eskolen arteko pilota txapelketan

Argazkia: Juana Mari

tean. Lan asko egiten ari dira baina bikote gazteena dugu aipagarri: orain arte partidu guztiak irabazi dituzte eta aurrera segitzeko aukerarik haundiena dute.

Hitzaldiak nerabeentzat

Guraso elkarteak antolatutako dituzten gai hauekin: Zer da sexologia? Metodologia, Gazte egitaraua eta sexualitatea nerabearen.

Pilota txapelketa ere hasia da dagoeneko eskualdeko eskoien ar-



XVIII. Kultur Astea maiatzaren 18tik 26ra ospatuko da

Musika kontzertuak, Intsumisio Eguna, erakusketak, herriko umore saioa eta beste hainbat ekitaldi izanen dira egun horietan

JOSEBA AZPIROZ

Aurten ere Kultur Taldeak ekitaldi ugari antolatu ditu XVIII. Kultur Astea dela eta. Larunbatean musika eskolako kontzertua izanen da 6,30etan zinemaren eta rock kontzertua gauetz. Igandean, ohitura zaharrei buruzko bideo emanaldiak 12tan eta 6,30etan Aurreran. 4etan xake txapelketa jubilatuen aretoan. Astelehenean berriz, Irrati Eguna izanen da; Karrape Irratian eguerdiko 2,30etatik gaueko 10etara luzatuko den saio berezia. Asteartean Intsumisio Eguna: 8etan bideo emanaldia eta hitzaldia zinemaren. Asteazkena 8etan, Leitzako umorea Torrean, atsaldekoa eginez, Joxe Mari Pakonekoa, Patxi Pastain, Kandido Tolaxenekoa eta Itziar Inazibarunarekin. Jubilatuen eskularen erakusketa Udaletxean egonen da ikusgai. "Euskerak betiko mintzoa"



Bi marka hautsi ziren apirilaren 28ko crossean. Andres Perezek 29'49" behar izan zituen 10 kilometroak egiteko eta Aingeru Mindegiak leitzar batek egin duen denborarik onena egin zuen, 32'11" Argazkia: Joseba

Nafarroako Gobernua-ren erakusketa ere leku berean egonen da. Ohitura eta tresna zaharrei buruzko argazkiak berriz, Aurreran. Erakusketen ordutegia: astez, 6etatik 8ak arte. Igandetan: 12etatik 2ak arte. Gainerako egunetako programazioa, hurrengo alean emanen dugu.

Ekitaldiak antolatu dituzte, orain denon partehartzea behar da.

Elkarriren Leitzako tailerrak kanpainaren berri eman du

Elkarriren Leitzako tailerrak prentsurreko baten bidez herri mugimendu honek burutu behar duen kanpainaren berri eman zuen. Beste esparru batzuetara zabalduko bada ere, garrantzi gehiena herrietan antolatu behar dituzten elkarrizketarako foro

edo topaguneei eman zioten.

Foroa, ideologi desberdinetako herriko pertsona talde bat izanen da eta eztabaidak ez dira publikoak izanen. Horretaz gain, buzoneo baten bitartez, herritarren laguntza ekonomikoa ere eskatuko dute.

ttipi-flash

Rock kontzertua

Maiatzaren 18an, 10,30etan Leitzako pilotalekuan Aurrera K.E.k. Torre Bartzordeak eta Kultur taldeak antolatutako rock kontzertua izanen da: La Polla, Patagonia, Berpiztu eta Kashbad taldeek joko dute.

Karrape Irratiak

ordu bat lehenafost hasten du bere saioa. Oraingo ordutegia 11etatik ordu biak arte da.

Herriko zeharbidean

ibilgailuen abiadura neurtzeko semaforoak jartzeko proiektua onartu du Nafarroako Gobernua. Aurrekontua 6 milioi t'erdikoa da eta gehienezko abiadura, orduko 50 kilometro.

• Era guztietako Aseguruak
Etxerakoak, Bizitzakoak,
Istripuetakoak, Jubilazio Planak

Huarte Gotzai 8, beheak • 31880 LEITZA
Tel. (948) 61 09 19
M^a Jesus BARAIBAR



Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu
Eta ezkontzea pentsatu baduzu,
harrituko zaitugu!

Tel. 51 01 25 . Faxa: 61 09 65
LEITZAko Gaina

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86 • LEITZA

SALDIASko zerrategia

Eraikuntzarako estrukturalak eta enbalajeak

Zubizarra, © 615108 eta 615044 • SALDIAS

Baztan

Elizondon berriki zolaberritutako karrikak ez dira berriz altxatuko

Orain bi urte zola altxatu zenean Balleko Etxeak aukera eman zion Repsol-Butano enpresari gas tuboak sartzeko

JOSEBA IGARABIDE

Baztango Balleko Etxeak ez ditu berriki zolaberritutako Jaime Urrutia eta Braulio Iriarte karrikak gas-propano tuboak sartzeko altxatuko. Badi-rudi Repsol-Butano enpresak Baztanen gasa hedatzeko kanalizazioak egiteko proiektua aurkeztu diola Nafarroako Gobernuko Industria sailari. Balleko Etxearen ustez, eskakizun horrek zenbait akats izateaz gain, Elizondon berriki zolaberritutako karrikak altxatu beharko liriteke, tuboa sartzeko. Patxi Oartzabal alkateak adierazi duenez, "zola berria paratzeko karrikak altxatu genituenean aukera eman genion Repsol-i gasaren tuboa sartzeko. Tuboa ere guk ordaindu beharko genukeela izan zen beraien erantzuna eta, noski, ezetz erran genien".

Balleko Etxeak, Elizondon zolaberritutako karrika hauei dagokien instalazioa egiteko beharrezkoa den obra-baimena ez dela emanen erabaki du ahobatez.



Doike euskara taldearen aurkezpen ekitaldia arrakastatsua suertatu zen, ehun lagunetik goiti bildu baitzituen. Biharamonean, 'Hamabi ordu eskuaraz' eguna ospatu zen. Dantza, musika eta kirola, herritarren partehartze gogoarekin uztartu ziren, egun eder batean.

Herri Urratsera joateko aski modu erraxak daude

Maiatzaren 12an Senperen ospatuko den Herri Urratsera gateko aukera zabala emanen dute aurten Male-rrekako Langarra eta Baztango Doike euskara taldeek eta Baztango mendigoizaleak elkar-teak.

Autobusez joan-etorria egitea 1.200 pezeta gostako da eta autobusa goizeko 8etan abiatuko da Donez-tebetik. Oinez joan eta autobusez itzuli nahi dutenek berriz, 800 pezeta ordaindu beharko

dituzte eta bi aukera izanen dituzte: ibilbide luzea, zazpi ordukoa, goizeko 7etan abiatuko dena Elizondoko plazatik eta ibilbide laburra, lau ordu t'erdikoa, 8,30etan leku beretik abiatuko dena, Otxondoraino autotetan gateko. Oinezko bi taldeak Urdazubin elkartuko dira eta 2,30ak aldera ailegatu-tuko dira Senperera. Izen ematea Donez-tebeko euskaltegian edo Elizondoko mendi os-tatuan egiten ahal da.

Bertizko Partzuegoak aurtengo plangintza onartu du

Bertizko Partzuegoak aurtengo ekitaldi egitaraua onartu du. Naturheziketarekin zerikusia dutenak, oiha-nen probetxamendua eta egoera aztertu eta horren arabera, natur-guneen gestioa anto-latu izanen dira egin-behar nagusiak

Azkenik, lanak eta ekipamenduari dagoz-kion aurrikuspenak daude egitarau honen barnean.

ttipi-flash

Amaiurko

arkua berregiteko 3.321.314 pezeta-ko aurrekontua aurkeztu du Balleko Etxeak. Eskaintza onena egiten duen enpresari emanen zaio eta arkua bota zuen kamioiaren enpre-sak ordaindu beharko omen du.

Kontzertua

Maiatzaren 13an Elizondoko elizan kontzertua eskainiko du Pablo Sarasate orkestrak.

Ehizturien azterketa

egiteko izena emateko azken eguna maiatzaren 17a izanen da. Baztan-darrek, Ehizi eta Arrantza elkarte-aren eman dezakete.

Baztandarren Biltzarra

iragarriko duen kartelaren egilea Irurtzungo Jose Javier Legarra arkitektoa da. Epai-mahaiaren ustez aurkeztutako zortzi lanen artean berea izan da onena eta 50.000 pta-ko saria jaso du.

ARLA

ARDOTEGIA

Ardoak • likorrak • freskagarriak

Santiago, 56 • ELIZONDO

☎ 45 32 66 (etxekoa) ☎ 45 24 73 (bodega)

ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA
KIROL TROFEOAK

Tfnoa: 580 445 • ELIZONDO



BAZTAN

FUNERARIA

EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
Tfnoak: 580373 • (908) 776176


II. Argazki Rallya burutu da igande honetan Oronozen

Ingurugiroari buruzko bortz gai landu dituzte partehartzaileek

Josu INZUARTE

Baztan-Malerreka-ko II Rallye Fotografikoa maiatzaren 5ean ospatu zen Oronoz Mugairen. Gaztelune elkarrekin antolatua Baztango Udalaren babesarekin eta Iruñeko Kutxa Muzizipalaren laguntza bereziarekin. Joan den urteko ralian Fidel Ordoki lesakarra izan zen. Gaia: 'Naturari Erasoak'. Saria 20.000 Pta. eta trofeoa.

Hau da iazko Rallyaren argazki irabazlea (Lehen saria). Egilea Fidel Ordoki lesakarra izan zen. Gaia: 'Naturari Erasoak'. Saria 20.000 Pta. eta trofeoa. Arg.: Josu Inziarte



Herri-lurren hobetzea

Gartzaingo Urrutia-ko borda, Ballegi, Ezkaldoko eta Etxalko borda inguruetan herri lurrrak hobetzeko baime-na eman du Nafarroako Gobernuak.

Udalekuak euskaraz

Nafarroako Euskara Zerbitzuek antolatzen dituzten 'Udalekuak euskaraz' kanpainan Baztango 20 haurrendako lekua eskatu du Balleko Etxeak.

HBren salaketa

Baztango HBk guardia zibila salatu du bailaran azken aldian gertatzen ari den pintada eta abertzaleen kontrako mehatxuen egile bezala.

ttipi-flash

- ◆ **Oronozko** eliza konpontzeko diru biltzearekin zen familia bakoitzari 15.000 pta. eskatuz. Orain, kontua kitatzeko 250.000 pta. falta direnez, deia luzatu da nahi duenak borondatea eman dezan.
- ◆ **Liburuaren Egunean** liburutegiko apale-tatik karrikara atera ziren liburuak. Itziar Zubizarretak ipuinak kontatu zituen.
- ◆ **Arizkongo elkartean** solasaldia eta kontzertua burutu ziren apirilaren 26an, Baztango talde antimilitaristak antolatua.
- ◆ **Baztangoizako** gazteendako aurkezpena egin zuen maiatzaren 3an Erratzuko Zubipuntan Baztango Gazte Asanbladak.

M^{te} Dolores Miñana
TOPOGRAFA
NEURKETA • PLANOAK
Lur neurketak, Luberrik
Plantazioak, etab...
☎ 580143 - 989.445986
Santiago 68, 3. esk. ELIZONDO

JATETXEA
Tfnoa: 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

Eskisaroi
jatetxea
Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO

ttipi-ttapa
Gida 96
Ez galdu sekulan begi bistatik.
Den-dena eskeintzen dizu!

LARRALDEA
SAGARDOTEGIA
Asteartetik ortzirala Betatik aitzinerat
Larunbata eta besta egunetan zabalik.
☎ 45 21 21 • LEKAROZ

Baztanen...
ESTHER FUNERARIA
Hilketak • Hilautoak • Eskelak •
Dokumentazioak
Beztitzeak, etab...
24 orduko zerbitzua
Eta Iruñean...
IRACHE TANATORIOA
Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54
Aritzondo (Bergara auzoan) • Tfnoa: 580971 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • **NARBARTE**
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • **ELIZONDO**

FOTO MENA
UDA HONETAKO EZKONTZETAKO
KANPAINA BERRIA HASIA DAGO
**JAUNARTZE EGUNEKO ARGAZKI
ETA OPARI HOBERENAK**
KALE NAGUSIA 4 • TEL. ETA FAX: 45 08 25 • DONEZTEBE
SANTIAGO KALEA 40 • TEL. 58 01 55 ELIZONDO

Zugarramurdi

Jendea lasai egoteko lekua antolatzen ari dira

Pilotalekura ematen duen Katalene eta Xutegia gibeiko aldeko eremua zaborrez eta larrez garbitzen ari dira

MARGARI ETA KORO

Bazterrak pittat moldatzeko intentzio-akin eta jendeari toki egoki bat eskeintzeko bidenabar, hasi dira lanetan pilotalekura ematen duen "Katalene" eta "Xutegia" gibeiko aldeko eremuan. Orain arte larrez eta zaborrez beteak ziren bazterrak garbitu, txukundu, eta mahai eta aulki batzuk paratuko dira, hantxe jendea lasai egoteko moduan, edo baita berenduleku gisan erabiltzeko ere.



Ederki goxatu ziren haurrak eta ez hain haurrak apirilaren 21ean herrira etorritako txotxongilo multzoarekin. Mikel Diezek gustuko izanen lukeen omenaldia jaso zuen, Euskal Herri osotik etorritako panpinekin

Meza ETBn

Maiatzaren 5ean hasi eta hurrengo bi igandetan ere, Euskal Telebistako lehenbiziko katean, goizeko 9,30etan Zugarramurdiko elizatik meza eskainiko da. Berez, meza bezperan grabatuko da, larunbateko 5,30etan bainan biharamonean ikusiko da.

Lezeko gaupasa

Ekainaren 22an izanen da lezeko gaupasa eta *Sustraia*, *Rigor Mortis* eta *Skunk* taldeak arituko dira, bileran erabaki zenez.

Urdazubi

Herriko bestak maiatzaren 15tik 19ra ospatuko dira

Zikiro-jatea larunbat eguerdian izanen da

ALIZIA OLAIZOLA

Laister hasiko dira herriz herri bestak. Lehendabizikoak Salbatoreren omenez izanen dira Urdazubin nahiz Iruritan eta aurtun lehenago ospatuko dira. Bestetako egitaraua erdialdeko gehigarrian heldu da eta ikusten denez, joan denurtetik hunat ez da aldaketa haundirik izan.

Aipatuko dugu, halere, larunbatean, maiatzaren 19an, zikiro-jatea eguerdian izanen dela, joan den urtean aspaldiko partez


egin zen bezala. Azken urteotan, zikiro-jatea arratsetan egiten zen, Zugarramurdiko Joxe Angel Olaizolak zikiroa erreko du makiletan. Zikiro-jateko txartelak Indiano-baitan eta Koxkan izanen dira salgai eta hobe da aitzinetik hartzea, zikiro egunean hartuz gero garestiago izanen baitira.

Kinto-bestak

Kinto-besten aldia pasatzen ari da. Maiatzaren 4ean Indiano-Baitan ospatu zuten. 1954tik 1958raingo Zugarramurdin eta

Urdazubin jaiotako kintoak elgarretaratu ziren eta gero dantzaldia izan zuten Arizkongo Angel Mari akordeolariarekin. Giro ederra izan zuten, duikabe.

Urdazubiko neska-mutiko taldea kanalearen ondoan



Sara

Joko Berriko finalak jokatu dira

Sarako Izarrak antolatutako xapelketan berrogeita hamar bikote aritu dira

MIXEL ETA JACQUELINE

Martxoaren 30ean Joko Berriko finalak jokatu ziren polikiroldegian. Kanporaketan 50 bikote aritu ondoan emaitzak hauek atera dira:

Lehen sailean:

Laretchea eta Mariluz irabazle, Inda eta Urdanpilletaren kontra.

Bigarren sailean:

Mariluz eta Bereko-txea irabazle, Jaunena eta Errandonearen kontra.

Hirugarren sailean:

Mariluz eta Errandonea irabazle, Ormazabal eta Amestoiaren kontra.

Laugarren sailean:

Telletxea eta Saint Martin irabazle, Garat eta Pradèren kontra. Ondotik 120 pilotazalek afaldu zuten.



Laugarren saileko Joko Berri jokolariak

Sarako Itzulia, maiatzaren 19an burutuko da

Axuria mendi elkartek antolatu VII. Sarako Itzulia maiatzaren 19an iraganen da. Goizeko 7ak eta 8ak artean mendizalek beren ibilaldia hasiko dute eta hunen

iraupena bederatzita hamabi orenen artean mugatua da. Izenemaitzak egunean berean, abiatu aitzin, 6,30etik goiti oihalezko geriza azpian egin behar dira, sartze dretxoa 25

libera edo 600 pezeta-koa izanik. Berritz ere antolatzaileek norgehiagoka bat ez dela azpimarratu dute, "bainan bai gorputzari gogor eginez mendiaz gozatzeko parada bat".

ttipi-flash

❖ **Xaramela abesbatzak**

'Le chœur du Pays Basque' ohia) apirilaren 27an bere lehen dizkaren grabaketa hasi du Sarako elizan Elkar argitaletxearen gerizapean. Abesbatza hunek bere 10. urterrena betetzen du aurten eta 50 bat gizon eta ematez osatzen da.

❖ **EGiko gazteak Iparraldean**

Iparraldeko EGik antolaturik, EAJ-PNV inguruan dauden 100 bat gaztek, gehienak Hegoaldekoak, oinezko ibilaldian parte hartu zuten apirilaren 27an Azkaïndik Ibarrunerat Saran gaindi pasatuz. Jean Aniotzbehere, Sarako auzapezak ongi etorri bat eskaini zien.



ROMANO dekorazioak

PINTURA ETA PAPEREZTATZE LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

- Zolak jartzen ditugu:
 - Kortxoak
 - Moketak
 - Parketa
 - Sintasola
- Gure kolokazio tailerra daukagu
- Komertzioen errotulazioa

Aurrekontuak konpromezurik gabe

Legia I • Tel. 631137-630941 • **BERA**



JATETXEA

© 580297

Pedro Axular ELIZONDO

Santxotena

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - © 580313 ELIZONDO

GA **SAS KAITZ** fontanería calefacción

Empresa colaboradora de **REPSOL** RUTANO

Era guzietako instalazioak: Etxekoak, industrialak...

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60

EZKONTZAK

Mikel Salaberria Goizueta eta **M^a Jose Zabala Goizueta**, Goizuetakoak, apirilaren 27an.

Jesus Javier Oiartzun Sagastibeltza eta **M^a Victoria Ugartemendia Urki-zu**, Leitza eta Berastegikoa, apirilaren 13an.

David Goñi Uharriz eta **M^a Jesus Yagüe Telletxea**, Burlata eta Iruñakoa, Oronozen, apirilaren 13an.

Juan Esteban Arraiago Eskiroz eta **Olga Garro Itxaso**, Areso eta Iruñakoa, martxoaren 30ean.

JAIOTZAK

Gurutze Iparagirre Oskoz, Arantzakoa, apirilaren 13an.

Jon Mazizior Mitxelena, Arantzakoa, apirilaren 7an.

Lierni Tolosa Burlada, Berakoa, apirilaren 22an.

Narrea Tolosa Burlada, Berakoa, apirilaren 22an.

Auréliè Goienetxe, Sarakoa, martxoaren 21ean.

Laura Gorosurreta, Sarakoa, apirilaren 4ean.

Iñaki Saralegi Barcos, Leitzakoa, apirilaren 18an.

Endika Etxenike Maritorea, Elizondokoa, apirilaren 18an.

David Albiasu Azkarraga, Narbar-tekoa, apirilaren 17an.

Iratxe Iparragirre Eratsun, Doneztebekoa, apirilaren 16an.

HERIOTZAK

Timoteo Castro Mitxelena, Arantzakoa, apirilaren 5ean, 82 urte.

Francisco Taberna Altzuri, Arantzakoa, apirilaren 7an, 90 urte.

Genaro Biurrarena Almandoz, Arantzakoa, apirilaren 9an, 91 urte.

M^a Pilar Ezkurra Mutuberria, Eratsungoa, martxoaren 28an, 65 urte.

Benita Esparza Arbizu, Beran, apirilaren 21ean, 78 urte.

Marguerite Olhagaray, Sarakoa, apirilaren 24an, 80 urte.

Paul Etcheverria, Sarakoa, apirilaren 27an, 68 urte.

Xan Urbistondo, Sarakoa, apirilaren 28an, 48 urte.

Petra Gorriti Goldaraz, Elizondon, apirilaren 12an, 80 urte.

M^a Antonia Bienzobas Lasheras, Elizondon, apirilaren 23an, 59 urte.

M^a Julia Bastarrিকা Zelaia, Elizondon, apirilaren 23an, 79 urte.

Pedro Ostiz Eguaras, Elizondon, apirilaren 23an, 78 urte.

Lucia Traburua Ibañez de Egileta, Elizondon, apirilaren 25ean, 92 urte.

Jose Ignacio Etxenike Sukilbide, NARBARTE, apirilaren 14an, 71 urte.

Jose Jorge Etxeberria Saldias, Lesakan, apirilaren 26an, 84 urte.

Mercedes Migelena Migelena, Lesakakoa, apirilaren 28an, 83 urte.

Antonio Bereau Mindegia, Doneztebekoa, apirilaren 22an, 85 urte.

Roman Suhars Larraia, Urdazubikoa, apirilaren 2an, 82 urte.

Toribio Kamino Etxenike, Zugarramurdi, martxoaren 27an, 70 urte.

Ramona Mugerza Labaien, Aresokoa, apirilaren 12an, 82 urte.

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA**
3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO**
polit bat oparitzen diegu. Amendako
"Está creciendo" liburua daukagu.

IRUÑEKO KUTXA
Euzko Lege Auzitegiak



ZALAIN MOTOR



MEKANIKA • KARROZERIA • ELEKTRIZITATEA • GRUA

© eta Faxa 63 11 57 • Tel. mugikorra 908. 77 80 23

BERA

Aukerako Autoak



*Auto
errebisatuak
eta
garantia
osokoak*



Ford Zerbitzu ofiziala
Grua zerbitzua 24 ordutan

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta Urgentziak	112/088
Osasun Zentruak	
Elizondo	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka	637428 / 637336
Leitza	510248 / 510573
Nafarroako Ospitaleak	
Nafarroako Ospitalea	102100
SSko Urgentzi	
Zerbitzua	246750
Virgen del Camino	
Erresidentzia	109400
Gurutze Gorria	226404
Gipuzkoako Ospitaleak	
Irungo ospitalea	614600
Gipuzkoako ospitalea	460299
Erresidentzia	453800
Anbulatorioak	
Irun	630264 / 621106
Anbulantziak	
Oitz	450242 / 450805
DYA	
Lesaka	
(Larrialdiak)	(943) 464622
Doneztebe	
(Larrialdiak)	171717
FUNERARIA	
Doneztebe	450475
Elizondo	580924
Lesaka	637404
Suhiltzaileak	
Oronoz-Mugairi	592255
Garraioak	
Bidasotarra	631150
Baztanesa	580129
Leitzarari	515018
Aberiak:	
Iberdrola	450335 / 450336

Udalen dirulaguntzak TTIPI-TTAPARI

Gure erredakziora bidalitako fax baten bitartez, Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak salatu egiten du inguru honetako udalek TTIPI-TTAPARI dirulaguntzak ematerakoan agertu duten jarrera.

Hona segidan, aiputako testua hitzez hitz: «TTIPI-TTAPAREN 176. zenbakian (96.02.22) "TTIPI-TTAPAK etxe guzietara ailegatzeko administrazioaren dirulaguntza behar du" ize-neko erreportaia argitaratu zuten, 1995. urtean erakundeengandik hartu zituzten dirulaguntzen berri emanez. Bertan ikusi ahal izan genuenez, Bortzirietako kasuan izan ezik gainerako guzietan ez dute eskatutako dirulaguntza ematen. Horetako batzuek ematen dituzten dirulaguntzak nahikoa sinbolikoak dira eta kasu batzuetan ez dute pezetarik ere ematen. Hau guztia lerro hauen bidez salatzen moduko iduritzen zaigu.

Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak bertze udalen jarrera salatu du, eta bidenabar, gai honi buruz laister egiten den bilerara etortzeko gonbitea luzatu die. Eskualde honetako euskararen normalizazioan TTIPI-TTAPAK 'hagitz funtzio inportantea' betetzen duela ere erraten du idazkian.

Guk zalantzarik ez dugu TTIPI-TTAPA etxe guzietara eta dohainik iristeko administrazioaren laguntza nahitaez behar duela. Gaur egun TTIPI-TTAPA aldizkaria eskualde ho-

netako biztanleentzat aldizkari preziatua da; datuek diotenez, gehien irakurtzen dena da. Dudarik ez da TTIPI-TTAPAK eskualde honetako euskararen normalizazioan hagitz

funtzio inportantea betetzen duela. Hain zuzen horixe da TTIPI-TTAPAREN helburua: euskara indartzea. Aldizkari honek herritarrek bertako berriak euskaraz irakurtzea lortu du eta

dagoeneko erraten ahal dugu hori ohitura bihurtu dela. Gainera, sekulan euskaraz irakurri ez duen jendeak ere irakurtzen du.

Beraz, udal horiek TTIPI-TTAPARI dirulaguntzarik ez emateko edota eskatutakoa baino aunitzez guttiago emateko dituzten arrazoiak zein diren jakin nahi dugu. Horrez gain, Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak inguruko udalei gonbitea luzatzen die gai honi buruz solasteko laister egiten den bilerara etor daitezten.

Bortzirietako Mankomunidadearen izenean, Jose Ramon Amoros Oskoz.»

Udaletako iragarki ofizialak TTIPI-TTAPAN noiz?

Gure aldizkaria 6.200 etxetara ailegaten da. Egunkari guziaz batera hartuta ere, bakarrik 3.900 etxetara ailegaten dira gehien salutzen den egunean. Hori aski ezaguna da, inor ez da harrutuko datu hoiekin. Hala ere, udalek iragarki ofizialak argitaratu behar di-

DONEZTEBE - SANTESTE
CONCURSO PARA ADJUDICACIÓN
LOS SERVICIOS DE FRONTÓN-B
PISCINA MUNICIPAL

1.-OBJETO: Concurso para la adjudicación de los Seren Frontón-Bar y Piscina Municipal.
2.-PLAZO DE CONCESIÓN: 1 año, prorrogable hasta el máximo.
3.-FIANZA PROVISIONAL: 12.000
4.-FIANZA DEFINITIVA: 60.000
5.-CANON TEMPORAL (IVA).
6.-PRESENTACIÓN: En el Ayuntamiento de Doneztebe. Hora: 10:00h. Lugar: B. etc.

LEITZAKO UD

tuztanean beti egunkarietara jotzen dute, azkenean, garestiago ordaindu eta jende gu-

ttiagok irakurtzeko. Zinez gauza bitxia eta ulertezina. Bainan, noiz arte horrela?

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE



Elizagibela © 451849

Igandetan goizeko 6etan idekia bokadilloak... ematen ditugu

- ✓ Pintxoak
- ✓ Bokatak
- ✓ Hanburgesak
- ✓ Sandwichak
- ✓ Patata bixiak
- ✓ Patata presituak

Giro eta musika onaz gozatzeko

Euskal Herriko txapela jantzi dute Lesakako sokatiralariak 560 kilotan

600 kiloko finalean berriz, Aresoko taldea azpitxapelduna izan zen eta Beti Gaztekoak hirugarrenak

Euskal Herriko sokatira txapela eskuratu zuen Lesakako Beti Gazte taldeak, 560 kiloz behitiko kategorian, apirilaren 21ean burutu zen finalean. Ez zuten lan errexa izan lesakarrekin, izan ere joan den urtean txapeldun suertatu zen Urrestilla herrian jokatu zen finala. Tiraldi gogorrenak beraien kontra izan zuten, hain zuzen ere. Lehenengo lesakarrekin eraman zuten 4'15"tan. Bigarren nuloa egin zuten, lau minutu baino gehiago tiran egon ondotik. Hirugarren tiraldia ere hagituz luzea izan zen eta lesakarrekin 3'18"tan. Gainerako tiraldi guztiak Beti Gaztekoek irabazi zuten, Euskal Herri mailako lehen txapela Lesakara eramanez. Finala



Nafarroako txapelketan bikain ibili ondotik, Lesakako sokatiralariak Euskal Herriko 560 kiloko txapela etxeratu zuten. 600 kiloko kategorian ere ongi ibili ziren eta hirugarren postua lortu zuten

Artxiboa

lean tiran aritu zen zortzikotea honako hau izan zen: Karmelo eta Joxeangel Mitxelena, Gerardo eta Igor Tellexea, Iñaki Igoa, Agustín Zubieta, Alejandro Sarobe eta Mikel Al-

mandoz.

600 KILOTA ARESO BIGARRIN

Astebete beranduago Gasteizen jokatu zen 600 kiloko finala eta hemen ere eskualdeko titalarien partehartzea

bikaina izan zen. Ezin izan zuten txapela eskuratu -Urrestillako taldeak irabazi zuen-, baina Areso azpitxapelduna izan zen eta Beti Gaztekoak hirugarrenak geratu ziren.

Leitzako Herri Crosseko marka berria ezarri zuen Andres Perez korrikalariak



29'49"ko denborarekin, Leitzako Aurrera elkarteak antolatzen duen herri crossaren marka berria ezarri zuen apirilaren 28an Andres Perez korrikalariak. Ondotik Rafa Maritxalar lesakarra eta Alfredo Lusarreta sartu ziren. Ez zen errekor bakarra izan, Aingeru Mindegia leitzararak, herriko batek egindako markarik onena egin baitzuen, 32'11"rekin. Emakumeen artean Maika

Ariztegi iturendarra nagusitu zen, Rosa Talavera eta Rosa Orofino-ren aurretik. Inmaculada Zuñiga izan zen lehen leitzararra.

Partehartze haundia

Benjaminetan Xabier Sagastibeltza eta Arantza Sukuntzak irabazi zuten. Alebinetan Oinatz Bengoetxea eta Lorea Oloriz nagusitu ziren. Infantiletan Imanol Otero eta Amaia Ruiz iritsi ziren lehen postuan eta jubeniletan Xabier Arraras izan zen garaile.

Gizeozko beteranoren artean Manolo Otero izan zen garaile, lehen herritarra Tomas Alduntzin izan zen bitartean. Emakumezkoen artean Carmen Garciak irabazi zuen eta lehen leitzararra Juli Sagastibeltza izan zen. Bestelako saririk ere banatu zen, hara nola, korrikalari sinpatikoen, Roberto Baserriren eskuetara joan zena. Korrikalari adintuena, 66 urteko Joseba Noain izan zen eta gaztetxoen, berriz, bi urteko Judith Saizar.



❖ I. Mendi Crossa maiatzaren 19an Beran

Berako Agerra mendi taldeak lehen aldiz mendi crossa antolatu du maiatzaren 19rako. Laisterketa 11etan abiatuko da eta izen ematea goizeko 9,30etan idekiko da (500 pezeta). Irteera, Agerra mendi taldearen egoitza izanen da eta 16 kilometroko ibilbidea izanen dute betetzeko: Agerra-Meaka-Dornaku-Malet-Zumalku-Altzate-Kaxerna-Agerra. Laisterketa bi kategoriatan banatuko da, senior (40 urte arte) eta beteranoak (40 urtetik goiti). Laisterketa eta gero Zalain jatetxeak eskainitako hameketako ederra izanen da parte hartu dutenentzat. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 630362ra (Xabier).

Hamabostaldiko Jokaldiak



Eskualdeko sokatira taldeak

Nafarroako eta, batez ere, eskualdeko sokatiraren maila inoiz baino altuago dagoela erakusten ari dira Areso eta Beti Gazteko taldeek. Dagoeneko txapel bat ekarri dute eta gehiagoren esperantza badute, gainera.



Inaxio Errandonea Alkaiagako pilotaria.

Bi urtez eskuz banakako txapelketaren finalean egon ondotik, aurtengoan finalerdian kanporatu zuen Arretxe. Final laurdene-tako partidua eskuko minarekin bukatu zuen eta finalerdian ez zuen partidua jokatu.

DATUAK.....

1 Asier Olaizola 21 urteko pilotari profesional berria Goizuetakoa da.

2 Alti enpresak bi urteko kontratua eskaini ondotik apirilaren 13an egin zuen debuta, Elizondon, Unai Apeztegia iturendarrak bezalaxe.

3 Zortzi urterekin hasi zen pilotan eta 12 urte zituenerako Nafarroako txapelduna izan zen.

4 Goizuetako taldearekin lau aldiz irabazi du 'Interpueblos' txapelketa, hiru maila ezberdinetan.

5 Joan den urtean Munduko Kopako txapelduna izan zen.

TESTUA:
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
MIREN TERESE HUITZI

Asier OLAIZOLA: «Berritikan hasi eta partiduz partidu hobetzeko helburua diat»

Maiatzaren 5ean 21 urte egin berri dituen Asier Olaizola goizuetarrak eskuko minekin lesionatua zegoela hartu zuen profesionala izateko deia Gasteizko Alti enpresatik. Ustekabean hartu zuen deia. "Bagenekien Asegarce pilotari batzuen atetik zebilela eta afizionatutan goian gu ibiltzen ginenez pentsatzen genuen iristen ahal zela, baina Altik deitzea kriston sorpresa izan huen neretzat". Gainera, enpresa honek fitxatu duen lehen afizionatua izan da, orain arte Empresas Unidasen zeuden pilotari profesionalak hartzen baitzituen, Galarza, Eugi, Unanue, Zezeaga edo Etxaniz, besteak beste. "Harreman onak dituzte bi enpresen artean -dio Asierrek- eta Alti edo Asegarceko pilotarien kontra arituko naiz, berdin berdin".

«ALDAKETA HAUNDIA ZEGOK AFIZIONATUTIK PROFESIONALETARA»

Ez du ongi hasi goizuetarrak profesionalak ibilbidea eta jokatutako hiru partiduetatik bi galdu eta bat irabazi du. "Lehenengoan arront nerbioso nintzen, atzelariak ere ez zuen asko lagundu



Miriam Blas, Anoetan aurten burutu den Euskadiko Irekian

eta hilabete t'erdiz jokatatu gabe egona nintzen eta hori nabaritzen da". Salto handia sumatu du, "pilota fuerteagoak dira, partiduak oso luzeak eta gorrak izan ohi dira. Afizionatutan, goian habilenean, partiduak nahiko erraxak egiten

zaizkik, baina profesionalak ez duk tanttoa bukatzen asmatzen". Tantoa bukatzen jakitea da, hain zuzen, Olaizolak bere buruari ikusten dion akatsik nabarmenena. "Dominatu egiten diat baina tantoa bukatzea falta zaidak, ezker gantxoak eta. Fisikoki asko hobetu diat, baina gehiago meioratu beharra zego". Ezaugarri onenak berriz, "sake ona, eskuinakin asko jotzen diat eta aurrean ongi

mugitzen diat pilota". Bi urteotan pilotariak ezagutu eta giroan sartzea du helburu. Goizuetatik punta-puntako hainbat pilotari ateratzearen arrazoia zera da Asierren ustez: "Hemen hiru frontoi ditugu eta besterik ez dagoenez, ume ttiki guziak hortan ibiltzen dira". 16 urteko anaia ere gogor heldu da adituen ustez. "Segitzen badik bi-hiru urtetan denoi egurra emateko moduan izanen duk". ■

► "Afizionatutan, goian habilenean, partiduak nahiko erraxak egiten zaizkik, baina profesionalak ez duk tantoa bukatzen asmatzen... Pilota fuerteagoak izaten dira"

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

IRURITA

► **Maiatzaren 15tik 19ra** Xehetasunak al-dizkari honekin batera banatu den gehigarrian.

URDAZUBI

► **Maiatzaren 15tik 19ra** Xehetasunak al-dizkari honekin batera banatu den gehigarrian.

GAU PASAK

SARA

► **Maiatzaren 11n** URRATS GAUA. Arratseko 8,30etatik goiti: Mixel Ducau eta Caroline Philips, Skunk, Gutariko Bat, Zanpa, bertulariak, Zizkuitz-Izar txarangak

KONTZERTUAK

ELIZONDO

► **Maiatzaren 10ean** Kasino ostatua 'Mortal y Rosa' taldea.
► **Maiatzaren 24an** Kasino ostatua 'Síndrome del Norte' taldea.

LEITZA

► **Maiatzaren 18an** 10,30etan Pilotalekuan rock kontzertua: La Polla Records, Patagonia, Berpiztu eta Kashbad. Antolatzaileak: Aurrera, Torrea eta Kultur Taldea.

UDABERRIKO FERIAK

DONEZTEBE

► **Maiatzaren 10ean** Ikus xehetasunak 15. orrialdean.

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Txokolate tarta

Osagaiak 4 lagunentzat

• 150 gr. txokolate • 150 gr. gurin • 200 gr. azukre • goilarakada bat irin • goilarakada bat maizena • goilarakada ttiki bat altxagarrri • 4 arraultze •

Prestatzeko modua

Txokolatea eta gurina bañomarian urtu eta gorde gerorako. Segidan, eta hemen errandako ordenean, gorringoak, azukrea,

irina, maizena eta altxagarrri nahasi, eta ongi oratu ondotik xurtingoak ere, elur puntuan eginak, gehituko ditugu. Guzi horrekin egin dugun oreari, hasieran urtutako txokolate eta gurina gehituko diogu. Hori egindakoan, ore guzia gurin eta irinarekin igurtzitako molde batera botako dugu eta labe berotan sartuko dugu ordu erdi batez



Xabi URMENETA

Herriko Ostaturkua
• ETXALAR •

PRESENTAZIOA: Moldetik ateri eta hozten utzi. Gainetik txokolate estalki bat emanen diogu (ura eta koñak tanta batekin egindako txokolatea, 300 gr. txokolate eta baso bat ur). On egin!

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

• **Zerrikumea** (20 kilokoa): 7.400 pzta.
• **Zerri gizena** (95-100): 188pzta./kilo
• **Zerramak:** 120-125 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

• **Aretze gizenak:**
• **Idixkoak:** Pzta./kg. Kanal Extra 550
1.koa 530
2.koa 500

• **Urruxak:** Pzta./kg. Kanal Extra 560
1.koa 530
2.koa 500
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.
• **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 18.000 eta idixkoak 25.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 26.000 eta idixkoak 35.000 Pzta.
Behi zaharrak:
Behi nabar gizena: 370 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 420 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA MINDEGIAK...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza.
• **Bertako sagarrondoak** 950.
• **Udareondoak** 950 pzta.
• **Gereziondoak** 1.050 pzta.
• **Aranondoak** 1.050 pzta.
• **Muxika** 880 pzta.
• **Urritza** 880 pzta



❖ LANDAREAK ❖

• **Porruak** zientoa 400.
• **Tipulak** zientoa 800.

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91



EKAITZA kafetegia

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Plaza Berria, 13
☎ 948 - 62 75 47
LESAKA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

ttipi-ttapa Gida Komertziala 96

Ez galdu sekulan begi bistatik. Den-dena eskeintzen dizu!



KONTSUMITZAILEENDAKO AHOLKUAK

Zura jaten duten intsektuen kontrako tratamenduak

Mobleak egiteko, zoletan jartzeko, etxegintzan... erabilera haundikomateriala da zura. Izan ere, beste materialekin konparatuz eskeintzen dituen abantailak haundiak dira. Halabaina, jatorri naturalekoa izateagatik, faktore zenbaitekin hondatzeko arriskua du zurak:

Kanpokoak: Kanpoko faktoreen artean hezetasuna, sua, eguzkia eta tenperatura aldaketak diren aipagarrienak.

Biologikoak: Faktore biologikoen artean intsektuak eta zura janez bizi diren onddoak daude. Berez, zura jaten duten intsektuak asko dira (xilofagoak). Inguru honetako intsektu arruntenen artean bipiak, sitsak, *Hylotrupeak* eta termitak topatuko ditugu.

SORTZEN DITUZTEN KALTEAK

Kalteak tikiak izaten dira hasieran, baina ez bada inolako tratamendurik egiten, etxea lurrera erortzeraino kaltetzen ahal dute zura. Zentzu horretan, bi di-

**Bipiak,
termitak
eta onddoen
kontra**



Termitak ikustea erraxagoa da apiril, maiatz eta ekain aldean, kabietatik ateratzen direnean. Duten itxuraren arabera, hegalak dituzten zinaurri edo txingurriekin nahasten ahal dira.

ra intsektu hauek erasotzeko moduak:

Termitak: Zinaurrien antza dute eta kabiak lurpean egiten dituzte. Zuraietara lurra ukitzen duen zur zatietatik sartzen dira. Pixkanaka, mamia jan eta zuloak egiten dituzte, azkenean, zura arras hondatuz. Apiril, maiatz eta ekain aldean ikusten ahal da hauen arrastorik.

Bipiak eta beste intsektuak: Hauek ez dute kabirik egiten termitak bezala. Zuraietako arraidura eta zirikuetan arrautzeak jartzen dituzte eta hoietatik sortzen direnkumekiek jaten dute zuren mamia. Nahiko hazi direnean, udaberri eta uda partean, kanpora ateratzen dira zuloak eginez.

NOLA JAKIN ZURA KALTETUA OTE DAGOEN?

Arrastoak begiratu: zuloak, zerrautsa, soinuak zuraren barnean... Horrela bada, zurai osoaren tratamendua egin behar da. Horretarako, komeni da esperientzia eta segurantzaren ematen duen enpresa batekin harremanetan jartzea. Garestiak izaten dira.

*Arrastoak ikusi
bezain abudo komeni
da zurarendako
zaintze eta sendatze
tratamendua
martxan jartzea.*

Bipi, termita, sits eta beste intsektuen kontrako tratamenduak egurrezko egituretan. Aholkularitza teknikoak: espezien identifikazioa eta proiektuak egiten ditugu.



Tel. (948) 13 05 26
(948) 37 12 04

Tratamendu garantizatuak
Aurrekontua konpromezurik gabe

AGENDA EGUNEZ EGUN

MENDI IRTEERAK

ELIZONDO

► Maiatzaren 12an

Baztango Mendigoizaleak Elizondo-Senpere ibilbidea, Herri Urratsera.

► Maiatzaren 19an

Baztango Mendigoizaleak Mondarrain-Pas de Roland ibilb.

MENDI IBILALDIAK

SARA

► Maiatzaren 19an

Sarako Itzulia. Xehetasunak 23. orrialdean.

OSPAKIZUNAK

SENPERE

► Maiatzaren 12an

Herri Urrats.

ERAKUSKETAK

URRUÑA

► Maiatzaren 15etik 28ra.

Udaberri-96 pintura eta eskultura erakusketak Urruñako Posta Aretoan. Arratsaldetan idekia 3etatik 7etara.

GUARDIAKO BOTIKAK

► Maiatzaren 6tik 12ra


Igantzi, Doneztebe, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

► Maiatzaren 13tik

19ra Bera, Sunbilla, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

► Maiatzaren 20tik

26ra Etxalar, Ituren, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.



Bi arrazoi gehiago Pedro Garmendia-ra etortzeko

Renault Mégane berriak ezagutu eta probatzeko

Baditugu zenbait arrazoi guregana etor zaitezten Mégane eta Mégane Coupé berriak probatzera. Ekipamendurik osoena duten serieko automobilak. Segurtasun uhalendako Eusle Sistema Programatua. Airbag. Edo frenatze ultramotzeko sistema eskusiboa. Arrazoi gehiago behar ote duzu guregana etortzeko? Zatoz Pedro Garmendia-ra Mégane eta Mégane Coupé Berriak probatzera, konpromisorik gabe. Kilikagarria izanen da. Seguru.

RENAULT
BERRIAK **Mégane**

GIDATZEN DUZU EDO ZAITUZTE?

PEDRO GARMENDIA, S.A.

Errep. z/g - Tfnoa. 58 04 31 ELIZONDO



RENAULT
GIDATZEKO
PLAZERRA

Talleres Onena PVC Aroztegia




**PVCak
abantaila aunitz ditu
baita garantiak ere**

Zaldubia Industrialdea
31730 IRURITA
Tfnoa eta faxa: 948 - 580532

**MUEBLES
METS**
mobleak orokorrean
BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA

*Ez galdu
denborarik!!*

**SUKALDE ETA
BAINUETAN
AUKERA ZABALA**



**Hiru hitzetan:
Polo. Diesel. Berria.**

...orain Sampi Aragonen

1.656.000 Ptatik. aitzin



Volkswagen

SAMPI ARAGON

Leitzako errepidea • © 450354 / 450759

D O N E Z T E B E